

5
Normalkuntza
Hizkuntzaren
kalitatea
Administrazioan

6
Idazkiak
Nola idatzi
errezetak?
Eta menuak?

24
Ba al zenekien?
Kortsarioak euskal
kostaldean

Iñigo Lamarka Iturbe, Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoa:

**“Euskal herritarrek
erabili egiten dituzte
beren eskubideak
defendatzeko tresnak”**



Ibilbide aberatsa egin du Ararteko berriak orain arte. Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle izan da EHU-n, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako letratu. *Gehitu* Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteko lehendakaria izan da urte askotan, eta hori dela eta egiten zaigu ezaguna. Gogotsu da lanean Lamarka: Arartekoaren irudia indartu nahi du. Giza eskubideen aldeko lana erakundeena eta gizartearena omen da.

10. or.



Eguberriak han eta hemen

Euskaldunak aspaldi hasi ginen atzerrira joaten, baina bertara ere munduko txoko askotatik etortzen zaigu jendea, eta gure artean geratzen dira bizi izaten. Gure ohiturak, tradizioa, bizimodua, jai-giroa... desberdinak dira. Eguberrietan, bereziki, gehiago igartzen da hori: guztiek aitortu digute inoiz baino gehiago gogoratzen direla sorterrian dituzten senideez. Gurean bizi diren hainbat atzerritarrekin solastatu gara, Gabonak nola bizi dituzten jakiteko.

13. or.

Eztabaida: Lagunduko al du istripuak murrizten puntu bidezko karnetak?

Datorren urteko udan jarriko omen da indarrean puntu bidezko gidabaimen berria. Helburua istripuak gutxitzea da. Araua hausteak puntuak galtzea dakar, eta, berreskuratu nahi badira, eskolara joan behar du gidariak; kasu batzuetan, azterketa teorikoa eta praktikoa berriro egin behar du. Europako herrialde batzuetan dagoeneko aplikatzen ari dira araudi hori. Araudi berria istripuak murrizteko baliagarria ote den jakin nahi izan dugu, eta, horretarako, hainbat ikuspuntu bildu ditugu.

20. or.



2004
BELÉN LUCAS



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Marrakizkiak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lanlendeak:
Kike Amonarriz, Aintzane Arrieta, Kristina Berasain, Sustrai Colina, Luis Elizondo, Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza, Joseba Lozano, Belén Lucas, Luma, Iñaki Mendizabal, Nerea Pikabea, Manuel Poblete, Jose-mari Robles, Rosa Mari Urrutia, Xabier Yurramendi, Arkaitz Zubiri.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argiraturako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

Oscar Terol, komikoa: “Gehien-gehien barre eragitea interesatzen zait”



Donostian jaio zen orain dela 35 urte. Aspaldi hasi zen antzerki lanetan eta 1995ean ikusi genuen telebistan aurrenekoz. Les Louviers hirukoteko kideetako bat zen bera. Ordurako bost urte zera-tzatan haiekin. Gaur egun *Vaya Semanita* umore saio ospetsuko aktore, gidoigile eta aurkezle lanetan ari da.

Nola hasi zinen aktore lanetan?

Ikasketak baino gehiago interesatzen zitzaizkidan beste gauza batzuk. Ikasle garaian aritu nintzen antzerki talde batean estreinakoz. Gero formato txikiko antzeppenetan esku hartu nuen. Ondoren etorri zen telebista.

Nola bururatu zitzaizuen *Vaya Semanita*-ren gisako saio bat Euskal Herria bezalako herrialde delikatu batean egitea?

Ekoiztetxe batek proposatu zigun saioa. Hasiera batean, albistegi umoretsu bat eskaintzeko asmoa genuen. Aurrera egin ahala, ordea, bestelako osagaiak gehitu genizkion saioari. Bizi garen lekuko gauzak kontatzen ditugu, eta ni komikoa naizenez, umorearen galbahetik igarotzen da dena. Politikak ere badauka lekua hor, jakina.

Zein helburu du saio horrek?

Umorea da helburu bakarra. Gaurkotasan soziala eta politikoa hartzen ditugu oinarritzat. Baina gidoia idazten dugunok eduki horri umorearen ikutua ematea lehenesten dugu. Umorea galtzen dugun egunean porrot egingo dugu. Bestalde, umorea distantzia da, eta umorearen bitartez inguratzen gaituenaren analisisa ere egin daiteke; baina niri gehien-gehien barre eragitea interesatzen zait.

Nola sortzen dituzue esketxak?

Zazpi pertsona biltzen gara astero, izaera eta iritzi askotako jendea. Gure ikuspegiak arras ezberdinak dira eta saioaren izaerak asko zor dio ikuspegi hauen guztien konbinazioari.

Zein da zuen inspirazio iturria?

Batetik, telebistan edo pelikuletan ikusitakotan oinarritzen gara. Bestetik, egunerokotasun arruntari arretaz begiratzen diogu. Kanean, familian edo lagunartean gertatzen dena gure erara islatzen dugu.

Zentsuratu dizuete ezer?

Telebista kateak ez. Zentsura egitekotan, guk geuk egiten diogu geure buruari. Ez diegu ideiei mugarik jartzen, baina gero, ondo begiratzen dugu momentu horretan gauzatzeko

modukoak diren edo ez; eta gairen bat une zehatz batean gordinegia bada, hurrengo baterako uzten dugu.

Euskal herritar guztiei eragiten diezue barre berdin?

Jakina, bakoitzak bere pentsaera du, bere iritziak. Hala ere, badirudi saio hau jende askok duela gogoko. Ematen du asmatu egin dugula nola gainditu banatzen gaituzten hesi horiek. Erakunde publiko, alderdi politikoa edo mugimendu sozial bakar batek ere ez digu bere desadostasuna azaldu, eta hori arraroa da herri honetan. Alde guztietatik txalotzen gaituzte. Ustekabean harrapatu gaituen zerbait da.

Jaso duzue kritika txarrik?

Iritsi zaizkigun kritika txar guztiak jendeak egindakoak dira. Esate baterako, gaixotasunen bat zeukan batek, alderdiren bateko kide bakarren batek, edo ertzainen batek helarazitakoak. Erakundeek, ordea, ez digute kritikarik egin. Kasu guztietan banakoak izan dira.

Zergatik agertzen zarete beste telebista kateetako zapping-etan horrenbeste?

Batetik, egiten duguna atsegin dutelako izango da. Bestetik, gure saio bakoitzean esketx motz ugari dauzkate aukeran, eta pieza labur horiek oso egokiak dira beraientzat. Horrez gain, euskal gaiekiko morboa handia da. Madrilen, adibidez, zur eta lur gelditzen dira: politika gaitzat hartzen dugun bakoitzean uste dute bakarrik elkarri egurra emateko egiten dugula.

Lehenengo urte arrakastatsuen ondoren, bigarren hau erronka handia izango zen. Nola doa oraingoz?

Aurreneko urtea bikotea seduzitzeko urtea izan zen. Jende askok ikusi zuen saioa orduan. Denboraldi berria ere ikusle kopuru handiarekin hasi dugu. Gure asmoa denboraldiaren bukaerara burua goian dugula iritea da, nekatu gabe: saio bakoitzean egin duzuna ezin duzu hurrengoan errepikatu, eta horrek sormen lan handia eskatzen du.

Arkaiz Zubiri
Kazetaria



Duela egun batzuk irakurri dut Kultura Sailak argitaratu berri duen *Euskararen kalitatea* txostena. ZORIONAK!

Txostenak, lehendabizi, kalitatearen definizio bat ematen du, eta ondoren, besteak beste, kalitatean eragiten duten faktoreak aipatzen ditu. Liburuaren 26. orrialdearen pasarte batean *Hiztun edo hizlarien hizkuntza gaitasunaz* ari dela honako baieztapena egiten zaigu:

“Faktore hau ere kontuan hartu beharrekoa iruditu zaigu euskararen kasuan. Hiztun edo hizlari nor ari den (euskaldun berri-berria den, euskaldun zahar alfabetatu gabea den...) kontuan hartu gabe ez dago darabilen euskara egokia den edo ez erabakitzerik. Gauden egoeran, zuzen-jatortasunean akatsez betetako jarduna egoki izan daiteke, hiztuna euskaldun berri edo euskaldun zahar alfabetatu gabea bada. Nolanahi ere, euskara normaldu ahala desagertu beharreko faktorea litzateke hau”.

Hori irakurri eta gutun hau idaztera animatu naiz. Sei urte daramatzat euskara ikasten (SEI URTE) eta orain arte nahiko frustratuta sentitu naiz euskaraz aritzeko, nire euskara maila ez delako ona. Baina txostena irakurri eta gero nire frustrazioa txikiagoa da; euskaraz hitz egiteko eta lan egiteko go-goak piztu dizkit. ESKERRIK ASKO.

Hizkuntza bat ikastea ez da erraza eta zerbait ikasten duzunean edo lanerako beharrezkoa den maila/perfila gainditzen duzunean, hainbat faktore direla medio ez da erraza egiten euskaraz aritzea.

Nire helburua euskara “perfektua” lortzea da, euskaldun osoa izatea. Baina badakit hori ez dela urte bateko lana, urte askotakoa baizik. Horregatik, txostena irakurtzera animatzeaz gain, honako mezua bidali nahi diet euskaldun zahar alfabetatu gabe eta euskaldun berri guztiei: Gaitasuna gaitasun, ekin euskarari!

Asko dira Administrazioa ni bezala dabilzanak: euskara ikasten baina erabiltzeko zailtasunekin. Horregatik, Gobernuari honakoa eskatu nahi diot: bultza dezala euskararen erabilera administrazioan bertan ere, langile bakoitzak, gaitasun mugatuarekin bada ere, euskaraz lan egiteko aukera izateko.

Euskararen erabilerari oztoporik ez!

Bukatzeko, zorionak eta eskerrik asko *Administrazioa euskaraz* aldizkariari.

Administrazioiko langile euskaldun berri bat
Gasteiz

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Zuen iritziak, proposamenak, iradokizunak... bidaltzeko, idatz ezazue helbide honetara: webivap@ivap.es. Mezuarekin batera, izen-abizenak eta ENA adierazi beharko dituzue. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du testuak laburtzeko.

Hizkuntzaren kalitatea administrazioan

Kantitatetik kalitatera

Euskararentzat alor, eskualde eta hiztun berriak irabaztea izan da, orain arte, hizkuntza normalizazioaren alde lanean jardun dugunon kezka nagusia. Gurearen antzera egoera minoritarioan dagoen hizkuntza baten hedapenak, ordea, hizkuntzaren kalitatearen galera nolabaitekoa dakar ezinbestean. Hori dela eta, lehengo kezka zaharrari beste bat gehitu zaio, azken urteotan: hedatzen ari garen euskararen kalitateari dagokiona, alegia.

Kezka horri erantzun eta kalitateaz ari garenean zertaz ari garen argitu eta aurrera begirako norabidea markatu nahian, *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako* txostena landu genuen, Euskararen Aholku Batzordearen eskariz, Andoni Egañak, Joxerra Garziak eta hirurok. Txostena joan den ekainean argitaratu zuen Aholku Batzordeak, Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atalean eztabaidatu eta osatu eta gero.

Zer da kalitatezko hizkuntza?

Kalitatezko hizkuntza definitzerakoan, bere garaian Ibon Sarasolak proposaturiko ereduan oinarritu gara, egokitzaipen batzuk eginda. Eredu honetan hiru maila bereizten dira: euskara zuzena (araua betetzen duena), jatorra (senari darraiona) eta egokia (helburu komunikatiboak betetzen dituena).

Kalitatezko euskarak, azken batean, hiru maila horiek hartuko lituzke. Aldi berean egoki, jator eta zuzena dena litzateke, beraz, euskara ona, baina, euskararen normalizazioa erabatekoa ez den bitartean, elkarren arteko lehiari egon litezke hiru ezaugarriok. Horrelakoetan, egokitasunari eman behar genioke beti lehentasuna, gure ustez.

Ez dirudi, ordea, ikuspegi horretatik ari garenik, aukeran gehiegi begiratzen baitzaio zuzentasun gramatikalarri, eta gutxiegi, aldiz, egokitasun komunikatiboari. Gauzak horrela, hizkuntzaren inguruko ikusmoldea aldatu beharra daukagula uste dugu.

Aldaketa hori gauzatzen hasita, hezkuntzan, hedabideetan eta haur eta gazteen ingurune hurbilean saiatu behar genuke aurren-aurrea. Hala ere, administrazioa ez da planteamendu honetatik kanpo geratzen: ez lan esparru gisa (administrazioa bera), ez beste esparruetan eragiteko duen ahalmenari dagokionez.

Zer da kalitatezko euskara administrazioan?

Pernandoren egia badirudi ere, administrazioan erabiltzen den euskara kalitate onekoa izan dadin, ezinbesteko baldintza da administrazioan euskara erabiltzea. Horretarako, ordea, lege babesa behar du euskarak, eta gutxieneko baldintza hori ere ez da betetzen, esaterako, Ipar Euskal Herrian edo Nafarroan.

Autonomia Erkidegoan ere, administrazio atal askotan horixe da arazo nagusia: ez dela euskara erabiltzen, alegia, eta, bistan denez, erabiltzen ez den hizkuntzak kalitaterik batere ez du, ez on eta ez txarrik.

Baina, erabiltzen duen kasuetan ere, nolako euskara darabil administrazioak?

Hizkuntza zuzentasuna honela definitu dugu: *“Euskaltzaindiaren arauen arabera euskara da zuzena, arau horiek aplikagarriak diren egoera komunikatiboetan. Ortografia, joskera, ahoskeran... maila askotan daragi zuzentasunak”*.

Gure ustez, administrazioak ere egokitasunari eman behar lioke beti lehentasuna. Alegia, administrazioan euskaraz ari den langileak euskaraz idazterakoan bere buruari egin beharko lizkiokeen galderak honako hauek dira: erabiltzen ari naizen euskara, hartzaileen gehingoak eroso ulertzeko modukoa al da? Jakinarazi nahi dudana komunikatzen ari al naiz? Modu berean idatzi edo itzuliko al nuke testu hori, aldamenean erdarazkorik izango ez banu?

Zoritxarrez, ez egoki ez jator ez zuzena den sasi-euskara ere ikusten da bazterretan.

Nola eragin dezake administrazioak euskararen kalitateari dagokionez?

Administrazio maila desberdinak bereizi beharko genituzke.

Batetik, erabaki arauemaile orokorrak daude. Hizkuntzaren erabilera arautu egin behar da, legearen gutxieneko babesik gabe ez baitago zer eginik.

Bestetik, administrazio sail edo atal bakoitzak bere erabilera eremuak markatu beharko ditu, eta erabilera plan eraginkorrrak martxan jarri. Metatu diren inertzia astindu eta neurri normalizatzaila sendoak hartu behar dira, sinesgarritasuna galdu nahi ez badugu.

Azkenik, administrazioak eragin egin behar du. Txostenean honako lan-ildo hauek lehenetsi ditugu:

- Familia eta ingurune hurbila: haur edo gazteak dituzten familienganako komunikazio bideak zabaldu, hizkuntzaren transmisioan duten zereginez ohartarazteko.
- Hezkuntza sistema: helburua, ikasbideak egokitasunaren ikuspuntura moldatzea da; gramatikaltasunetik komunikaziora pasatzea. Bestalde, ikastetxeetako hizkuntz normalizazio plangintzak hedatu eta sistematizatu egin behar dira, eta udalerrietako plangintzekin lotu eta koordinatu.
- Beste jarduera esparruak: herri/eskualdeko hizkuntz ondarea jaso eta haur/gazteen eskura modu erabilgarrian ipintzea. Horrez gain, eskolorduz kanpoko jardueren euskalduntze programei ekin eta haietara egokituriko errepertorioak lantzea.

Kike Amonarriz
Soziolinguista eta ARGIAko Sustapen arduraduna

Errezetak, menuak eta beste

Jatea denoi gustatzen zaigu, eta sukaldean aritzea ere askori. Gabon garaia badator eta hasiak gara urteroko jaki goxoen usaina hartzen: konpota, amaren intxaur saltsa ederra, karakolak... Guk ere, oraingoan zure sukaldera sartu nahi dugu errezetak nola egin daitezkeen azalduz; izan ere, hasieran sinplea dirudiena majo korapilatzen da, pausuak ondo ematen ez badira. Hauxe duzu, beraz, gaurko menua: errezetak nola idatzi, errezeta bat, menu bat eta sukaldaritzari buruzko hiztegitxo.

Errezetak nola idatzi

Hona hemen gomendio batzuk:

- ▶ Argibideak banaka-banaka jarri eta ordenatuta.
- ▶ Esaldi laburrak eta sinpleak erabili.
- ▶ Agintera da nagusi, baina ondo dago sukaldaria aintzat hartzea; eta horretarako, *dugu, ditugu...* bezalakoak erabilita hitz egingo diogu.
- ▶ Ahal bada, eraman aditza aurrera.

Errezetak egiteko egitura hau proposatzen dugu:

- ▶ Izenburua
- ▶ Osagaiak, zenbat lagunentzat den, denbora eta zailtasun maila
- ▶ Prestaera
- ▶ Oharrak

Baratxuri zopa

- OSAGAIK**
- ▶ 8 baratxuri ale
 - ▶ Oliba olio
 - ▶ Ogi, zopa egitekoa
 - ▶ Ur beroa, litro eta erdi pasatxo
 - ▶ Gatza
 - ▶ 3 arrautza (aukerakoa)

PRESTAERA

- ▶ Zehatu baratxuriak fin-fin.
- ▶ Ebaki ogia, xerra mehe-meheak eginez.
- ▶ Jarri irakiten ura.
- ▶ Bota olio kazola zabal batera eta sutan jarri, su motelean.
- ▶ Erantsi baratxuri aleak eta begiratu erre ez daitezen.
- ▶ Baratxuriak bueltaka hasten direnean ogia gehituko dugu.
- ▶ Hartu zurezko koilara bat eta eragin ogiari bost bat minutuan: gorrituz joango da.
- ▶ Gaineratu ur irakina eta gatz, hartu dezala ogiak behar den beste ur.
- ▶ Utzi egosten su ezitan 15/20 minutuan, harik eta zopa behar bezala loditu arte.
- ▶ Oso bero zerbitzatuko dugu.



Nahi izanez gero, arrautzak mamitu ditzakegu zopatan. Horretarako, sutatik atera baino minutu gutxi batzuk lehenago, kraskatu arrautzak eta oso-osorik erantsi zopari. Eragin kazolari etengabe, arrautza ondo egin dadin.

Menuak

HASIERAKOAK

Eskarola entsalada, baratxuriekin
 Onddo gordinak entsaladan, Idiazabal gaztarekin
 Hegaluz salteatua, tomate entsaladaren gainean
 Barazki gainerreak, Proventzako eran
 Pikillo piperrak, txangurruz beteak
 Tomateak, hegaluz beteta, allioli saltsarekin
 Barregorrien eta urdaiazpikoaren nahastura
 Zigalen eta txirlen paella, untxiarekin eta txipiroiekin
 Txangurroa, Donostiako erara
 Foie gras, galeper eta berduren terrina

ARRAINAK

Antxoak, gatzetan onduak
 Hegaluz mendrezka errea, tipula eta pipermin frijituekin
 Bakailao kokotxa freskoak, saltsa berdean, patatekin
 Bieirak, menieure eran
 Itsaskabra pastela
 Legatz isatsa, zigalaz betea
 Lupia, txakolinaren kutsuan, txirlekin
 Mero kokotea, labean
 Txipiroi zatituak, beren tintan
 Xapoa, saltsa amerrikarrean

Arkume saiheskiak, mahatsondo abarretan erreta
Txahal zankarra, kazolan egina
Txerri mingainak, irinetan arrautzeztatuta
Ahate gibela, piku ogiaren gainean, oporto saltsan
Baserriko oilaskoaren bularkia, Idiazabal gaztarekin betea
Oilagor errea, gaztaina purearekin
Txingartutako indioilar izterrak, berdurekin
Entrekota, parrillan, letxuga entsaladarekin
Goulash-a, hungariar erara
Idi erregosia, Stroganov erara, pilaf arrozarekin

Jogurt tarta, eztizko izozkiarekin
Karamelu habia, limoi sorbetez betea
Mango erregosiaren milorria, krema arinarekin eta menda izozkiarekin
Txokolate berozko tartaleta, laranja sorbetearekin
Askotariko gaztak, fruitu lehorrekin
Sagar tarta, mahaspasekin
Marrubiak, bainila izozkiarekin salteatuak
Sagar egosiak karameludun natillekin
Esne gainezko eta kiwizko tarta
Gazta tarta, piku mermeladarekin

Sukaldaritzako hiztegitxoa¹

Sukaldeko teknikak

Anoatu / anoak egin: racionar
Apaindu: decorar
Aparra kendu: desespumar
Arrautza-irinetan pasatu: rebozar
Atondu/prestatu: aderezar
Bahetu: tamizar
Beratu: macerar
Bete: rellenar
Birrindu: refinar
Busti: mojar
Eho: moler
Emulsionatu: emulsionar
Erre: asar
Erregosi: estofar
Eskabetzatu: escabechar
Ezkatak kendu: desescamar
Freskatu: refrescar
Frijitu: freir
Galdarraztatu/gardostu: escaldar
Garretzatu: flamear/flambear
Gatza bota / gatza egin: añadir sal
Gatza eta piper beltza bota: sal-pimentar
Gatzozpindu: aliñar
Gazitu: salar
Gezatu: desalar
Gorritu: dorar
Gozatu: endulzar, condimentar
Gratinatu/gainerre: gratinar
Harrotu: montar, esponjar
Hautseztatu /... gainetik bota: espolvorear
Hezurak kendu / hezurgabetu: deshuesar, desespinar
Hornitu: guar necer
Hustu: vaciar
Irabiatu: batir
Iragazi: colar
Irakin: hervir
Irinetan pasatu: enharinar
Izoztu: helar
Izpitu/papurtu: desmiglar
Koipea kendu: desgrasar
Koipetu/koipeztatu: engrasar
Konfitatu: konfitar
Labean erre: asar al horno
Larrutu: desollar
Loditu: ligar
Lumatu: desplumar
Lurrunetan egosi: cocer al vapor
Luzatu: estirar
Marian egosi: cocer al baño María
Marinatu: marinar
Mazpildu: majar
Molderatu: moldear
Moldetik atera: desmoldear
Mozkortu: emborrachar
Napatu: napar
Odolustu: desangrar
Ontzutu: adobar
Oratu: amasar
Parrillan edo plantxan erre: asar a la parrilla
Pasatua: pasado
Pausatzen utzi: reposar
Platereratu / platerera atera: emplatar
Puntuari jarri: rectificar
Salteatu: saltear
Saltsa bota: salsear
Sueztitu: rehogar, sofrear
Triapak atera: eviscerar
Txigortu: tostar
Txikitu/zehatu: picar
Txingarretan erre: brasear
Uretan jarri: poner en remojo
Urritu: reducir
Urtu: fundir
Xerratu: filetear
Xukatu: escurrir
Zuritu: pelar

Sukaldeko tresnak

Almaiz(a): almirez, mortero
Arrabol(a): rodillo
Arraspagailu(a): rallador
Arrautzontzi(a): huevera
Barazki-xukadera: escurridor
Baxera: vajilla
Bisigu-ontzi(a): besuguera
Bitsadera: espumadera
Brotxa: brocha
Burruntzali(a): cazo
Ehogailu(a): molinillo
Eltze(a): olla
Entsaladera: ensaladera
Erretilu(a): bandeja
Espatula: espátula
Estalki(a): tapa
Ezkata-kentzeko(a): desescamador
Frijontzi(a): freidora
Gainerretzaile(a)/Gratinagailu(a): gratinador
Gatzontzi(a): salero
Goilara: cuchara
Goilaretxo(a): cucharilla
Gomazko espatula: lengua de goma
Guraize(ak): tijeras
Hagaxka: varilla
Haragia txikitzeako makina: picadora
Hozkailu(a): frigorífico
Hustugailu(a): vaciador
Inbutu(a): embudo
Irabiagailu(a): batidora
Iragazki(a): colador
Izozkailu(a): congelador
Kafetera: cafetera
Katilu(a): bol
Koktel-ontzi(a): coctelera
Kraskagailu(a): cascanueces
Kazola: cazuela
Kopa: copa
Labana: cuchillo
Labe(a): horno
Labe-ontzi(a): rustidera
Lata-irekitzeko(a): abrelatas
Matxete(a): machete
Mikrouhin-labe(a): horno microondas
Molde(a): molde
Ohol(a): tabla
Oliontzi(a): aceitera
Orratz(a): aguja
Ostra-irekitzeko(a): abreostras
Ozpín-ontzi(a): vinagrera
Paella-ontzi(a): paellera
Parrilla: parrilla
Pastelgintzako mahuka: manga pastelera
Pitxer(ra): jarra
Plantxa: plancha
Plater(a): plato
Presio-eltze(a): olla de presión
Puregailu(a): pasapurés
Robot(a): robot
Saltsaontzi(a): salsera
Sardexka: tenedor
Saretxo(a): rejilla
Saski(a): cesta
Txotx(a): palillo
Zali(a): cucharón
Zartagin(a)/padera: sartén
Zorrozkailu(a): afilador
Zukugailu(a): exprimidor
Zurigailu(a): pelador

¹ Sukaldaritzako terminoen zerrenda hau egiteko bi helbide hauek kontsultatu ditugu: www.gastronomiavasca.net eta www.bagera.net



Mundua online

Jardunaldiak: Elkartasuna Sarean

Hegoa erakundeak (EHUko nazioarteko lankidetzeta eta garapenari buruzko ikasketa-institutuak) berriki antolatutako jardunaldi horietan emandako hitzaldiak eskuragarri jarri dituzte helbide honetan:

<http://www.hegoa.ehu.es/>

Jardunaldietan, gaur egungo mundu globalizatuan teknologia berrien zeregina kokatu nahi izan zuten eta teknologia hoiek gizartearen eraldaketari eskaini diezaizkioketen aukerak aztertu ere bai. Webgunean aurkitu daitezkeen hitzaldien artean, Javier Echeverría filosofoarena dago, besteak beste.

Luis Elizondo

Europako Konstituzioa euskaraz

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzulzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) Europako Konstituzioaren euskal lehen itzulpena egin du, Atzerri Arazoetako Ministerioaren eskariz. Testu bateratua adosteko, Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko adituen iritzia eskatu du IZOk. Behin-behineko bertsioa ikusi nahi baduzu, sartu zaituz IVAPeko web orrian: www.ivap.org

Euskararen araugintza Leitzako Euskaltegian

Eskuartearen zuten ikasmateriala erabiliz, Leitzako Euskaltegiko hainbat irakasleren artean ikasgelan erabiltzeko liburu praktikoa bat atondu eta plazaratu dute: *Euskararen araugintza: arauak eta hiztegi batua. Ariketak eta ebazpenak*. Ikasgeletan ondo landutako materiala da eta gramatikaren arlo guztiak lantzen ditu sei ataletan: aditz laguntzaile batua, sintaxia, hiztegi batua, onomastika, ahoskera eta test orokorra; betiere, egitura berberari jarraituz: lehenengo, arauak; gero, ariketak; eta, amaitzeko, soluzioak. Egileak honako hauek dira: Agurtzane Gartziarena, Aitziber Bergara, Amaia Astibia, Kepa Mateorena eta Kontxi Zozaia. Argitalpenak Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du.

Zorionak!

Zorionak! *Senex* eta *Uztaro* aldizkariei. Lehenengoak 20 urte bete ditu; bigarrenak 50. zenbakia kaleratu du. Horrela jarraitu dezatela urte askotan!

Hizkera juridikoa eta itzulpengintza Sinposioa

Azaroaren 17 eta 18an egin da, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuaren eta IVAPen arteko lankidetzaren bitartez, hizkera juridikoa eta itzulpengintza aztertu dituen Sinposioa.

Bertan, Santiago Larrazabalek, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendariak, erakunde horren ekarria azaldu zuen eta Alacanteko Unibertsitateko Enrique Alcaraz jaunak eta Europako Erkidegoetako Auzitegiaren Idazkaritzako administratzaile nagusi den José Palacio González jaunak egin zituzten lehen hitzaldiak. Ondoren, Deustuko Unibertsitateko César Gallastegi, Gotzon Lobera, Adolfo Arejita, Andres Urrutia eta Esther Urrutia irakasleak, Euskal Herriko Unibertsitateko Itziar Alkorta irakaslea eta IVAPeko Eneko Oregi mintzatu ziren.

Mahai-inguruan, berriz, Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren, Justizia Auzitegiaren lan egiten duten itzultzaileen, EIZIEn, UZEIren, eta IZOren ordezkariak hartu zuten parte. Manu Arrasate izan zen IVAPen ordezkaria.

Bestalde, Sinposioaren esparruan Deustuko Unibertsitateak IVAPen laguntzarekin eta lankidetzan itzuli eta argitaratutako zenbait lege-testu aukeztu ziren: Kode Zibila, Zigor Kodea, Foru Lege Zibilak, lege zibil bereziak, eta abar.

Andres Urrutia euskaltzainburu

Joan den hamasei urtean Jean Harischelhar izan da euskaltzainburu, eta hemendik aurrera Andres Urrutia izango da. Bilbotarra, notarioa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, abenduaren 17an egin zuten bileran izendatu zuten euskaltzain osoek. Zeregin berri honetan lankide izango ditu: Beñat Oihartzabal, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Andres Iñigo eta Henrike Knörr. Zorionik beroenak opa dizkiogu berari eta bere lankideei.

Euskarazko hiztegiak eskuko ordenagailuetan

Robotiker-eko kide batek, Urtza Iturraspek, hiztegiak PDA bidez (eskuko ordenagailuak) kontsultatzeko modu bat landu du, UEUren HIZTEK *Hizkuntza Teknologia* izeneko graduondokoaren baitan eta *Ixa* taldeko irakasleen zuzendaritzapean. Honela, edozein tokitan eta edozein momentutan kontsultatu ahal izango da hitz baten esanahia edo itzulpena. Oraingoz, hiztegi hauek sartu dituzte: *Euskal Hiztegia*, *Hiztegi Batua*, *Hiztegi Modernoa* eta *Sinonimo Hiztegia*.



Ez dakigu nola, baina hirugarren solairuan dago gure Victoriano (Bittor hobeto). Agian, gaizki ulertze bat egonda “ari-naiztar” batek ez diolako ondo ulertu bere euskara, eta ahal izan duen bezala erantzun diolako.

B. —Egun on, (apal-apal) zibilez ezkondu nahi nuke. Mese-dez, ba al dakizu zein dokumentu aurkeztu behar deten ezkontzeko?

Funtzionarioa kantatzen hasi zaio “Ezkongaietan zerbait banintzan ezkondu eta ezerrez...”.

F₁. —Tira, tira, hemen ezkondu baino gehiago zigortu egingo zaitugu, zigor-arloko epaitegia da eta. Zoaz, zoaz agudo hemendikan Erregistro Zibilera, beheko pisura, hantxen erregistratuko zaitue eta ja, ja, ja.

B. —Bale, bale, behalaxe joango naiz (harritu egin da funtzionarioa hain umoretsu ikustean).

Jaitsi ditu poliki-poliki eskailerak beheko pisuraino, igogailua “Matxuratuta dago” ikusi eta funtzionatzen ez duela konaturatu ondoren.

B. —Ez dezu jakingo non dagoen Erregistro Zibila? —galdetu dio parean egokitu zaion funtzionarioari.

F₂. —Hau Dekanotza da. Ez al dezu ikusten kartel horretan jartzen duena? DE-KA-NO-TZA.

Zer dekano eta zer mekano, hi haiz bai motza! —Bittorrek berekiko.

F₂. —Eskuinetara hartu eta deitu gabe pasa, Tomasa!

B. —Hi, ni Bittor naiz (harro-harro).

Bittor haserretzen hasia da. Metro batzuk egin ditu eta informazioa eskatzeko hirugarren leihatila baten aurrean jarri da.

B. —Egun on (ez lehen bezain apal). Esango al zenidake zibilez ezkontzeko zein dokumentu behar deten?

F₃. —Barkatu, ez duzu ikusten beste pertsona honekin ari naizela; gainera, zenbakia hor hartu behar duzu eta zure txanda iritsi arte zain egon.

B. —Baina jende asko do, eta presa handia dakat. Bakar-bakarrik zibilez ezkontzeko zer dokumentu behar deten jakin nahi det, besterik ez. Gainera, alde batetik bestera nabil informazio horren bila eta eragozpenak besterik ez dizkidazute jartzen.

F₃. —Begira, ulertzen dizut, baina, hala ere, zenbakia hartu, besteak bezala, eta zure txanda itxaron. Eta orain, mese-dez, utzidazu, beste honen txanda da eta.

Gure Bittor Betizainz gizajoa sutan dago, begiak aterako lizkioke, baina zigorra 3. pisuan dagoela gogoratuz, gogoz beste eta marmarka atzera egin du eta han geratu da etsita txanda noiz iritsiko zain.

Eta hasi da Victorianoren espektakulua, beharbada, finagoa geratuko da Bittorren ikuskizuna esatea. Ordurarte jaramon gutxi egin badiote ere, munduko zilbor-hestea sentitu da lehenengoz. Aurpegi asko ditu berari begira jarrita, ala Margaritak ondo hazita duen tripari?

Ofizioa euskaraz egiteko eskatu du ofizialki. Baina epailea kanpotarra dela eta ez dakiela tutik ere esan diote. Beno, gezurra esan dut. Badaki “agur” esaten eta baita koadrilan musean “hordago” jotzen. Baina, bestela, belarrimotx. Horregatik, interpretea eskatzea ere badaukala esan diote ezkontza elebiduna egiteko. Besterik ezean, eskabidea egitea erabaki du.

Seguru asko, Bittorrek eta Margaritak nola ezagutu duten elkar eta abar jakin nahiko duzu, baina hori eskusiba da eta “Saltsa Arroza” programari salduko diot. Ea horrela aberasten naizen.

Hortxe daude denak interpretearen zain. Hamar minutu badaramate zain eta interpretea ez da oraindik azaldu. Epaileak, berandutzen ari dela ikusita, bertakoei galdera egin die ea inork nahi al duen interprete-lanak egin. Bat-batean den-denak mutu geratu dira; baita EGA azterketan bikain atera zuen Ambrosio ere. Badator, zorionez, interpretea, eta azaltzearekin bat musika jartzera joan dira kasetean, baina, derrepente, txispazioarekin batera, zartada ozen bat entzun da areto osoan, eta gero erre-usaina. *Dedio!* bota du Bittorrek. Jendea aztoratzen hasia da, eta batzuk builaka eta ihe-sean. Eskerrak *Txispasek* horman zegoen su-itxalgailua hartu eta berehala amatatu duen sua. Gero, poltsikotik pilak hartu eta jarri ditu kasetean, eta berehala Mendelssohn-en martxa ezaguna entzun da, eta jendea bere onera etorri da eta Bittorrek bere Margarita potxolitararen irribarre beroa jaso du.

Izan ere, bero sapa dago, eta epaile jaun txit potoloak, izerditan blai, asmatu du esaten: *Sin más preámbulos damos comienzo a la ceremonia nupcial. Eta has gaitezen lehenbailehen ezkontza honekin errepikatu du euskaraz interprete trebeak.*

Eta gaizki hasi denak bukaera ona behar du. Izan ere, ez ziren batere tontoak gure arbasoak esaera hura asmatu zute-nean: *Ezkontza eta buzkantza urteko sasoirik onenak.*

Eta, ikusi, bestela, zer goxo-goxo dauden Bittor eta Margarita Ozeano Bareako irla xarmangarri batean hain zorrotz jokatzegatik damu hartu zuen funtzionario hark egindako opariari esker. Erregalatutako Eguberrietako loteria egokitu zitzaiola, alajaina!

Xabier Yurramendi

Hizkuntza normalkuntzarako teknikaria



Iñigo Lamarka Iturbe, Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoa:

**“Hizkuntza eskubideak
giza eskubideak dira”.**

Esperientziaren zakua ondo beteta etorri da Lamarka Gasteizera, bere ibilbideak ondo erakusten duen moduan: Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle izan da EHU, baita Gipuzkoako Batzar Nagusietako letratu ere. Baina gay eta lesbianen askatasun mugimenduetan lan egin duelako da ezaguna donostiarra; *Gehitu Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarte*-ko lehendakaria izan da urte askotan. Hartu berri duen karguak bere aisialdiari ordu asko lapurtzen dizkion arren, giza eskubideen alde, bere eskuetan dagoen guztia egiteko prest dago Ararteko berria.

Gay eta lesbianen askatasun mugimenduetan ibili izanak eta hori ausardiak defendatu izanak eredu-garri egin zaitu gizartearen aurrean. Horrek lagundu al dizu Ararteko hautatua izateko orduan?

Hautatu nindutenek hala esan dute. Baina Gipuzkoako Batzar Nagusietan aritu izana ere kontuan izan dute. Eta zuzena da hori: azken batean Arartekoaren eginkizuna gizon-emakumeen eskubideak babestea da, eta horretan sartzen dira gay eta lesbianenak. Kolektibo baten defentsan aritu denak bere ekarpenak egin ditu eta erakutsi du gizartearen eskubideen defentsa. Azken finean, kolektibo jakin baten defentsan aritzea gizarte osoaren eskubideen defentsan aritzea da.

Emakumeen aurkako tratu txarrei buruzko berriak ugarituz doaz albistegietan. Zer egin dezake Arartekoak hori ekiditeko?

Arartekoak eskumena du Administrazioari aholkuak emateko alor horretan, zenbait neurri har ditzaten edo zenbait ekimen bultzatu. Euskal administrazioak lan ona egiten ari dira; alde horretatik azpimarratu beharrekoa da berdintasunaren legea onartuko dela laster. Nolanahi ere, uste dut gizarte balioen alorrean lan egin beharra dagoela, horren atzean dauden sexismoa eta matxismoa ezabatzeko. Giza eskubideen aldeko kultura bultzatu beharra dago; berdintasunaren eta duintasunaren balioak gizarteratu behar dira. Abenduan, Giza eskubideen nazioarteko eguna zela eta, ikastetxeetan lantzeko material bat argitaratu genuen generoagatiko diskriminazioa aztertzeke.

Herritarrek jotzen al dute Arartekoarengana ala utzikeria sumatzen da?

Euskal herritarrek herritartasun kontzientzia zorrotza dute; beren eskubideak defendatzeko orduan badute kontzientzia,

eta erabili egiten dituzte horiek defendatzeko tresnak. Kexu asko jasotzen ditugu. Dena den, Arartekoa gehiago ezaguturazi behar dugu: zeintzuk diren eginkizunak eta nola jo dezaket Arartekoarengana. Azken batean, gure eginkizuna ez da bakarrik kexuak jasotzea, baizik eta gure ekimenez ekin-tzak sustatzea.

Adin txikikoena da gizatalde babesgabeena. Nola eman babesa haurren eskubideei?

Hiru ekimen ditugu. Bata, ikastetxeetan lantzeko materiala. Bestea, egutegi bat, munduko umeek izan beharko lituzketen eskubideak jasotzen dituen. Horrekin zabaldu nahi dugu guztiok garelako desberdinak eta hori ona dela; guztion berezitasunak errespetagarriak direla, eta guztiok izan behar dugula trataera bera. Gero, urtarillaren bukaeran hiritar foroa antolatuko dugu. Adin txikikoen arteko biolentzia jorratuko dugu aditu baten laguntzaz. EAEko hiru hiriburuetan izango da hori. Bukatzeko, adin txikikoek jasaten dituzten abusuei buruzko txosten berezi bat egin nahi dugu; baina, horren aurretik, beste txosten bat prestatu nahi dugu eta hor aztertu zein den Euskadira bakarrik etortzen diren adin txikiko etorkinen egoera eta baita ume eta gazte horiek bizi diren zentroen egoera ere.

Etorkinak aipatu dituzula, bermatuta al daude haien giza eskubideak?

Badago legeari dagokion maila bat, baina gero gizartearena da bestea. Legeak ez ditu bermatzen etorkinen oinarrizko eskubideak, hutsune handiak daude oraindik. Oso larria da hemen bizi diren pertsona batzuk ez existitzea, paperik ez dutelako. Gizartearen gaizki ikusiak izan ohi dira; integrazio kontuan lan handia dago egiteko, eta horretarako gizarte osoa inplikatu beharra dago. Euskal Herrian etorkinen kopurua

baxua da oraindik; beraz, uste dut garaiz gabiltzala hasi besterik egin ez den honetan oinarri sendoak jartzeko, instituzionalak eta sozialak, etorkin horien gizaratzea eta Euskal Herriratzea modu kohesionatuan egin dadin.

Atxiloketak egoten diren bakoitzean kezka handia sortzen da gizartean, inkomunikazio egoera horretan jasan dezaketen tratuatik. Askok torturak salatzen dituzte gero. Atxilotuek ezarritako tortura salaketa bat nola konpon lezake Arartekoak?

Euskal Herriak baditu berezitasun batzuk. Horietako bat helburu politikoak lortzeko biolentzia erabiltzen dutenena da, ETaren kasua. Behin eta berriz eskatzen diogu ETari armak uzteko, armak erabiltzea ez baita uztartzen giza eskubideekin. Horri lotuta datoz atxiloketak. Giza eskubideen alorrean polizia-etxeak guneez osatuta daude. Arartekoak zer egiten du eta zer egin dezake? Gure tresna kexua da: kexua aurkeztu dezakete herritarrek. Gure eskuduntzaren barruan sartzen bada, guk tramitatu egiten dugu kexua, esate baterako, Ertzaintzak egindako atxiloten barruan kexuren bat egon denetan.

Horrez gain, hainbat gremio egin dizkiogu Barne Sailari, tortura eta tratu txarrak prebenitzeko; izan ere, guk garrantzi handia ematen diogu prebentzioa lantzeari. Torturatzeko aukera izpirik ere egon ez dadin, neurri guztiak hartzeko eskatzen dugu. Tortura eta tratu txarren inguruan, guri heldu zaizkigun tortura salaketak aztertzen ari gara, eta, nahiz eta Estatuaren menpeko eskuduntza izan, guk txosten bat prestatu dugu, hainbat neurri eta ekimen proposatuz. Azkenik, txosten hori administrazioei bidali diegu, baita gobernu zentralari ere. Azken finean, gobernu zentralari eskatu nahi diogu salaketa horiek ikertu ditzala, horixe baita gobernuaren betebeharra. Gainera, ez dugu ahaztu behar Estrasburgeko Giza Eskubideen Epaitegiak Espainiako Estatu zigortu duela ez zituelako behar bezala aztertu tortura salaketa batzuk.

Ezgaituek izan beharko lituzketen eskubideen inguruan gero eta kontzientzia handiagoa dago gizartean. Egiten al du Administrazioak ahaleginik horien eskubideen alde?

Kolektibo batzuk arreta berezia behar dute, eta horietako bat ezgaituak dira. Kexuak jasotzen ditugu; barrera arkitektonikoak direla-eta, arazo asko dituzte, legea ez baita betetzen. Legeak esaten du barrera horiek ezabatu egin behar direla. Ezgaituek askatasuna edukitzeko eskubidea dute kalean ibiltzeko, eraikitzen igogailuak jartzeko... Eta ez bakarrik arazo fisikoak dituztenak; izan ere, hor daude adimen urritasuna dutenak ere. Horiek baztertuta daude, eta askotan gertukoenez baztertuta.

“Hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira”. Hori xe aditu batek Hizkuntza Eskubideen Sinposioan esan

duena. Behatokiak urtero kaleratzen duen txostenean ez ditu datu oso xamurrak azaleratzen. Zer egin dezake Arartekoak, euskararen hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen?

Ni ados nago definizio horrekin: hizkuntza eskubideak giza eskubideak dira. Edozein hizkuntza norberaren identitatearen zati inportantea da; norberaren nortasuna garatzeko duen eskubidea da. Errealitate oso konplexu baten aurrean gaude. Lege-diak hainbat tresna eta ekimen jarri ditu abian. Euskal hiztunari bermatu beharko litzaioke Administrazioarekin dituen harremanetan euskaraz aritzeko aukera izatea, eta hainbat alorrean eskubide hori ez dago bermatuta. Osakidetza eta Ertzaintza dabilta atzeratuen; Estatu Administrazioaren ordezkariak ere antzera dabilta, baita Justizia Administrazioak ere. Legeak jarritako ibilbideak aplikatu egin behar dira, egiten ez den kasuetan; eta osatu, aldez, nahikoa egiten ez denetan. Gainera, badago beste alderdi bat: euskara zenbat erabiltzen dugun. Errealitate soziolinguistikoak esaten digu euskara gutxietsia dagoela eta erabilerak gabezia handiak eta muga asko dituela. Eta honetan beste hausnarketa bat proposatuko nuke: erabile-

erak ez du zerikusirik formula politikoekin. Lan egin behar da erabilera sustatzeko; erabilerak arduratu behar gaitu. Hizkuntza komunikazio tresna bat da, eta tresna hori erabili nahi duten hiztunen eskubideak babestu behar dira; baina ondare kulturala ere bada, munduaren ondare kulturala gainera, eta hori ere babestu behar da. Galera izugarria izango litzateke, bestela, munduarentzat.

Urratutako eskubideen zauriak josten hainbat ordu eman ondoren, zertan aritzen da Iñigo? Zer zaletasun ezkututzen ditu Ararteko berriak?

Urratutako eskubideen zauriak josten hainbat ordu eman ondoren, zertan aritzen da Iñigo? Zer zaletasun ezkututzen ditu Ararteko berriak?

Denbora libre gutxi daukat; egia esateko, lehen ere ez neukan asko. Lehen *Gehitu*-n ematen nituen nire aisialdiko orduak. Ararteko gisa izan dudana hasiera oso indartsua izan da. Bizitza abentura miragarria dela uste dut, alderdi txar asko baditu ere. Zinema asko gustatzen zait; hala ere, hilabeteak dira zinera joan ez naizela. Irakurtzea ere gogoko dut. Bestalde, afariak antolatzea, lagunekin berrikeria egotea, sukaldean aritzea, bikotearekin egotea. Paseatzea ere asko gustatzen zait, leku ezagunetan ibiltzea, baina baita leku berriak ezagutzea ere. Hiriko bazter berriak ezagutu nahi izaten ditut, oso kuriosoa naiz. Ilobak ere baditut eta haiekin egonda disfrutatzen dut. Umeak izateko asmorik badugun? Bada, erantzukizun handia da. Aitatasunak dedikazioa eskatzen du, eta oraingoz ez dugu asmorik.

Nerea Pikabea
Kazetaria

www.hiru.com

Etengabeko Ikaskuntza Ataria

Hezkuntza-zerbitzu publiko honek doako edukiak eskaintzen ditu interneten bidez. Euskal Herriko lehenengo hezkuntza-ataria dugu.

Atari honek euskal herritarren prestakuntza-erreferentzia bilakatu eta euskaldunak aktiboagoak eta parte-hartzaileagoak izaten lagundu nahi du. Horretarako, hainbat jakintza-arlori buruzko prestakuntza-edukiak jarriko ditu guztien esku, eta horiei esker, gauza berriak ikasiko ditugu, edo dagoeneko geureganatutakoak gehiago landuko ditugu.

Ataria Euskadi Informazio Gizartean Planaren barruan sartzen da. Plana, herritarrok parte hartzeko gune berriak eskainiko dituen ekimen ireki eta dinamikoa izan nahi duen apustu estrategiko gisa sortu zen. Hari esker, euskal herritarren eguneroko bizimoduan, TIKetan (Teknologiak, Informazioa eta Komunikazioak) integrazio handiagoa lortu da.

Atariak bultzatutako ikasteko bide berri hau *Euskadi, etengabeko ikaskuntzari buruzko Liburu Zuria*-n jasotzen den ikaskuntza-herri bihurtzeko estrategia globalagoaren barruan kokatu behar da. Estrategia horrek, Kontseilu Europarrak 2000ko martxoko Lisboako Goi-Bileran zehaztutako helburuei erantzuten die. Helburuon arabera, Europar Batasunean ezagupenaren gaineko ekonomia lortu behar da, munduko lehiakorrena eta dinamikoa, eta enplegu gehiago eta hobekin eta gizarte-koheresia handiagoarekin ekonomikoki modu iraunkorrean haziko dena.

Europar Batasunak giza baliabideetan inbertitzeak duen garrantzia azpimarratzen du, baita hezkuntza- eta prestakuntza-sistema moderno eta eraginkorren beharra ere, sistemok etengabeko ikaskuntzaren zeharkako ardatz komunak indartu eta osatzen dituela.

Gaur egun www.hiru.com atarian eskuragai dauden prestakuntza-edukiak lau multzo handitan daude banatuta: GAIAK, HOBETO BIZI, AISIALDIA ETA HIZTEGIAK

- ▶ **GAIAK:** Hainbat jakintza-arlorekin zerikusia duten gaien liburutegia (matematika, fisika, kimika, biologia, geologia, geografia, teknologia berriak, gizarte-zientziak, historia, artea, filosofia, euskara, euskal literatura, literatura, gaztelania).
- ▶ **HOBETO BIZI:** Guztiok kezkatzen gaituzten gaien buruzko informazioa eta aholku praktikoak (administrazio-zerbitzuak, aisiadirako jarduerak, gizartean parte-hartzea, ingurumena, kontsumoa, ohitura osasungarriak, umeen eta adinekoen zainketa).
- ▶ **AISIALDIA:** Aisialdiaz gozatzeko interes orokorreko gaiak (bidaiak, sukaldaritza, zinea eta musika).
- ▶ **KONTSULTA:** Hiztegiak.



Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak, 2005eko urtarriletik aurrera, ingelesa, frantsesa, alemaniera eta italiera ikasteko didaktika-baliabide berria jarriko du abian, **Hiru.com** atariaren bitartez.

Ikasketa ordenagailuz lagundutako ingurune birtualean burutuko da. Izaera formalik ez duten ikastaroak dira, eta haiei esker, erabiltzaileek ezagupenak garatu, freskatu edo lehenengo aldiz ikasiko dituzte.

Zerbitzuaren helburua ez da ikasleek aukeratutako hizkuntza ederto mintzatzea, herritar gehienak hizkuntza horretan moldatzeko gai izatea baizik. Gainera, Hezkuntza Sailak bideak eskainiko ditu ikasleek ezagupenak egoera berean edo antzekoan dauden beste pertsona batzuekin praktikatu ahal izateko.

Didaktika-baliabide berri hau honako profil hau dutenei dago zuzenduta: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 23 urtetik gorakoak, eskainitako hizkuntzetako bat ikasi nahi dutenak, eta ikas-erritmoa eta denbora beren beharrei egokitutako modu malgu batean antolatuta nahi dituztenak.

Azkenik, Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza hiru.com ataria autoikaskuntza-edukien bidez aberasteko lanean ari da, hori guztia helburu batekin: herritar aktiboak eta euskaldunen autonomia pertsonala bultzatzea.

Hezkuntza Sailak *Etengabeko ikaskuntzari buruzko Liburu Zuria*-ren barruan sustatutako estrategia garrantzitsu honen bidez, edozein pertsonak handitu eta hobetuko ditu hurrengo gaitasunak:

- ▶ Informazioa bilatzea
- ▶ Analizatzea eta sintetizatzea
- ▶ Antolatzea eta planifikatzea
- ▶ Iritzia ematea
- ▶ Erabakitzea
- ▶ Komunikatzea

Atari hau euskaldunon ikaskuntza-beharrak asetzeko edukietan eta ataletan hazten jarraitu behar duen askoz proiektu handigurago baten hasiera baino ez da. Lehenengo fase honetan, kontsulta-mailan hainbat jakintza-arlori erantzuten saiatu da. Etorkezinean, apurka-apurka elkarrengana eta parte-hartzea haztea nahi dugu.

Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritza

Eguberriak han eta hemen

Olentzero ezagutu zutenekoa

Atzerritik etorri dira eta euren jatorrizko herrialdeetan, kasu batzuetan, ez dituzte ezagutu ere egiten Eguberriak. Hona etortzean izan zuten haien berri. Beste kasu batzuetan, bestelako ohiturak eta tradizioak jarraitzen dituzte egun seinalatu horiek ospatzeko. Euskal Herrira etorri diren kultura ezberdinetako atzerritarrek, ezinbestean, jaien berri izan dute gurean eta, modu batera edo bestera, erabat errotuta dagoen tradizioari eutsi diote. Kanpotik etorri eta bertan bizi den jendearekin mintzatu gara Eguberriak nola pasatzen dituzten jakiteko.

Ospakizun seinalatu, maitagarria eta alaia dela esatean bat datoz guztiak, baita ere esatean herrimina handiagoa dela, hau da, gogoan dituztela, urteko edozein garaitan baino gehiago, senideak, lagunak, sorterrria eta euren kulturaren adierazgarri diren tradizioak. Mendebaldeko kontsumo-gizartearen ezaugarriak ere orain inoiz baino ageriago gelditzen direla uste dute eta, ildo horretan, gehiegizko oparotasuna salatzen dute. Hirietako kaleetan koloreetako bonbillak pizten dituzte, eta gurean horixe da Eguberrien aurreneko seinalea. Ondoren, egutegia begiratu, eta egun gorri mordoa: datozen egunen erakusle. Gure artean bizi diren batzuek badute Olentzeroren berri.



Pomen Jin. Txinatarrak, 24 urte



KALEETAN JARTZEN DITUZTEN KOLOREETAKO bonbillek liluratu zuten. Pomen Jin duela bederatzita urte etorri zen gurera eta orduan izan zuen Gabonen berri. Txinako hegoaldean dagoen Wen Chou hirian jaio zen, eta bertan ez ziren, duela bederatzita urte, bederen, Eguberriak ospatzen. Iaz jaioterrira itzuli zen eta pixkanaka-pixkanaka mendebaldeko ohiturak han ere errotzen ari direla jakinarazi digu: “Txinan gero eta jende gehiagok ospatzen du Gabon gaua, elkarri opariak egiten dizkiote eta elkarrekin afaltzen dute. Pekin eta Shangai bezalako hiri handietan, aspalditik ospatzen dituzte jaiak jatetxe eta hoteletan. Orain ohitura hori nekazaritza guneeetara ere zabaldu da. Egia da gero eta kristau gehiago dagoela”.

Hamabost urterekin utzi zuen sorterrria Jinek. Bere gurasoak aurretik etorri ziren Euskal Herrira. Bilbon ipini zuten beren aurreneko jatetxea. Ondoren, Iruñera joan ziren. Han pasa zituen Gabonak, eta Olentzeroren kanta ere ikasi zuela azaldu digu: “Olentzero joan zaigu, mendira lanera...”. Donostian bizi eta lan egiten du, egun, gazteak. Gabonetako apaingarriak jartzen dituzte jatetxean, arbola eta guzti, eta familiarekin ospatzen ditu jai hauek: “Elkarrekin afaltzen dugu, baina janari txinatarrak. Urtezahar gauean, dena den, ez dira ez mahatsak ez xanpaina falta”.

Txinatar egutegiaren arabera, otsailaren 8an amaituko da han urtea. Egundorretan ospakizun handia egiten dute ekialdeko herrialdean. “Su artifizialak egoten dira eta zaharrek dirua ematen diete gazte eta umei, eurek nahi duten oparia erosteko. Egundandia da. Oilarraren urtea izango da hurrengo Txinan”, adierazi digu. Jinek oso gustuko ditu jaiak, eta urte bukaera bitan ospatuko du: abenduaren 31n eta otsailaren 8an. “Gabonetan jendea alaiago dago eta hori polita da”, dio.

Lady Salas.
Ekuadortarra, 20 urte



JAIOTERRIAN HERRITARREK KALEETAN OSPATZEN dituzte Eguberriak. Eta hona etorri zenean, harritu egin zen hemen jendeak etxeetan biltzeko ohitura zuela ikusita. “Dena da ezberdina, erabat ezberdina. Egia da han eta hemen familia biltzeko ohitura dagoela, baina ospatzeko modua guztiz ezberdina da”, azaltzen du. Lady Salas duela bi urte etorri zen gurera, hemezortzi urterekin, hain zuzen ere. Guayaquil hirian jaio zen eta bere gurasoek, bizimodu hobe baten bila, Euskal Herrira etortzea erabaki zuten. Nafarroako Lizarrira hirian ezarri ziren. Behin lana aurkituta, seme-alabak ekarri zituzten. Lady ordurako ezkondata zegoen eta hemen izan du bere aurreneko semea. “Gabonak oso bereziak izanongo dira aurten; ume txiki-txikia dugulako etxean”, dio.

Ekuadorren, umeek eta gazteek, kaleetan pasatzen dituzte jaiak. “Eguraldia lagun dute; izan ere, han uda garaia da Gabonetan eta beroa egiten du. Umeak erruz ateratzen dira kalera eta panpinak egitea da ohitura. *Añosviejos* deitzen diegu panpin horiei. Lagun talde bakoitzak panpin bat egiten du. Urtezahar egunean, gaueko hamabietan, puntu-puntu, erre egiten dira. Oso polita da”, gaineratu du. Familian afaltzeko ohitura oso errotuta dago han, eta hemen ere ohitura horri eutsi dio Ladyk: “Hemen gauden guztiak biltzen gara eta haragi erre afaltzen dugu. Dena den, sorterrian dugun familia faltan botatzen dugu, bereziki, egunotan”. Bizarzuriren opariren bat jasotzeko itxaropena du Ladyk: “Hemen diru asko gastatzen da oparietan. Ekuadorren opari bat baino ez dugu jasotzen; hemen, berriz, opari asko egiten dira”. Olentzero ez du ezagutzen, baina aurten ikustera aterako dela agindu digu.

Mirjana Sopalovic.
Serbiarra, 44 urte



SERBIAKO HIRIBURUAN, BELGRADON, jaio zen Mirjana Sopalovic. Sorterrian bizi zenean ezkutuan ospatzen zituen, nolabait, Eguberriak. “Sistema komunista oraindik indarrean zegoen eta, ondorioz, etxean ospatzen genituen. Eguberri egunean elizara joaten ginen baina ezkutuan egiten genituen ospakizunak. Gobernua aldatu zen arte lanegun soil bat izaten zen”.

Sopalovic ortodoxoa da, eta, Eguberriak ospatzerakoan, egutegi zaharrari egiten dio kasu: “Hemengo egutegiarekin alderatuta, bi aste beranduago ospatzen ditugu jaiak, hau da, urtarilaren 6a Gabon gaua da, eta urtarilaren 14a, berriz, Urtezahar gaua”. Ospakizunak ere ezberdinak dira: “Tradizioaren arabera, berrogei eguneko baraualdia egin behar da Eguberrien aurretik, baina inor gutxik egiten du hori egun. Gabon gauean, dena den, denok egiten dugu baraua. Etxean biltzen gara gauean eta afari arina egiten dugu. Kandela pizten dugu mahaiaren erdian, eta etxera ailegatzten den azkeneko pertsonak haritz adar bat ekarri behar du, hosto lehor eta guzti. *Badñak* deitzen diogu adarri”.

Sopalovic duela hamabost urte etorri zen Euskal Herrira. Irunen bizi da egun, bere senarra eta bi semeekin. Gurean oso gustura daudela dio, baina jaiak ospatzeko sorterriko tradizioari eutsi diotela azaldu digu: “Hemen nolabaiteko histeria pizten da opariekin, eta jan ere, larregi jaten da. Eguberriak hasi eta ez direla inoiz bukatuko ematen du. Guk modu apalago batean ospatzen ditugu, eta opari bakarra egiten diogu elkarri, Urtezaharreko gauean, urtarilaren 13ko gauean, alegia.

Thamer Birawi.
Palestinarra, 44 urte



GABONAK IRISTEN DIRENEAN INOIZ BAINO atzerritarrago sentitzen da Thamer Birawi. Euskal Herrian bere familia txikia eratu du, baina, egunotan, jaioterrian duen familia handia du gogoan. “Eguberriek nire etxetik kanpo nagoela gogorarazten didate urteko beste edozein garaik baino gehiago. Alderai dabilen pertsona naizela etortzen zait burura eta faltan botatzen ditut nire senideak”. Palestina utzi eta ikastera joan zen atzerrira. Erroman ezagutu zuen gaur egun bere emaztea dena, euskalduna. Tolosan bizi da, emaztearekin eta alabekin, duela hamar urte. “Elkarrekin afaltzen dugu denok, eta opariak egiten dizkiogu elkarri. Olentzeroren eta Erregeen opariak jasotzen ditugu, opari bikoitza, alegia”.

Dena den, Birawik kontsumo-gizartea kritikatzan du: “Mendebaldeko gizartearen mekanismoen eraginez, jaiak benetako zentzua galdu dute, eta gaur egun ospakizun komertziala besterik ez dira. Jatorrizko esanahia galdu eta opari garestiak eta bazkari oparoak egitea baino ez dira orain Gabonak”.

Birawi musulmana da, eta bere jaioterrian ez dituzte inoiz jai hauek ospatu. “Gure erlijioaren fedearen ikuspuntutik oso ondo ulertzen dugu zein den zentzua, baina guk inoiz ere ez dugu ospatu. Batetik, okupazioarekin ez dagoelako ospakizunak egiteko baldintza egokirik eta, bestetik, Eguberriek ez dutelako ezer islatzen gure gizartean. Urtezahar gauean ospakizun txikiak egiten hasi dira orain, komunikabideen eraginez, baina ez dute zerikusirik hemen egiten den jai erraldoiarekin”.

Musulmanek bi egutegi hartzen dituzte aintzakotzat: hemengo eguzki-egutegia, kristaua, eta ilargi-egutegia, arabiarra. Azken honen arabera, 1425. urtean gaude. Birawik bi kulturen ohiturak uztartzen ditu bere eguneroko bizimoduan, betiere errespetua oinarri hartuta: “Ezagutzen ditut gizarte honen ezaugarriak, eta hemengo ohiturak nolabait neure egin ditut”. Euskara ikasi dut eta hemengo tradizioak jarraitzen ditut. Ingurukoek ere errespetatzen dituzte nire ezaugarriak eta askatasuna”.

DUELA HILABETE HASI ZEN TURROIA EGITEN. Sorterrian gozo hori inoiz ikusi eta dastatu izan du. Azken hiru urteotan turroia jaten du, baina sorterrian utzi duen sendi zabala botatzen du faltan. “Txikia nintzenean oso ongi pasatzen nuen egunotan. Nire anaia-arreba guztiak –bederatzigara– gurasoen etxean elkartu eta elkarrekin egoteko egunak ziren. Izugarri gustatzen zaizkidalako dira orain tristeak niretzat Eguberriak”.

Angolako hiriburuan jaio zen Manuel, Luandan. Ovimbundu etniakoa da, eta sinesmen tradizioan dago oinarrituta bere erlijioa. Hiriburuan, dena den, aspaldian ospatzen dira Eguberriak: “Jendeak gurasoen etxean biltzeko ohitura dauka. Normalean, hango familiak oso zabalak dira eta denek elkarrekin egoteko baliatzen dituzte jaiak. Batzuetan hogeita bost pertsona elkartzen gara. Aza, garbantzua eta bakailaoa patatekin afaltzea da tradizioa. Postreko bizkotxo”. Afaldu ondoren, kalera irten eta umeekin jolasteko ohitura dago hiriburuan. “Etxez etxe joaten ginen umetan diru pixka bat bildu eta kaleetan koloretako olio-lanparak jarri ahal izateko”.

Gozogilea da gaur egun Manuel. Gauz egiten du lan. Abenduan eta urtarrilean ordu estrak egin behar izaten ditu: “Badakit gaueko hamabietan sartzen naizela, baina noiz aterako naizen ez dago jakiterik”. Duela hiru urte etorri zen Euskal Herrira, Donostiara, hain zuzen ere. Gazteentzako aterpe batean egin zituen harrera eta han eman zituen aurreneko bi urteak. Iaz, lanean hasi eta bere egoera legezatzeko paperak eskuratu zituen. “Hemen bizi naizenetik oso bestelakoak dira eguberriak, tristeak; etxekoen falta daukat”. Iaz, lagun baten familiaren etxean igaro zituen jaiak.


Eguberrietan gastatzen den diru mordo harrigarri egiten zaio gazteari. “Nire sorterrian pobrezia handia dago eta jendeak ahalegin berezia egin behar izaten du egunotan afari oparagoak izateko. Kezkatuta egoten dira bakailaoa erosteko dirua lortuko duten. Hemen jendeak gauza asko erosten ditu baina, nire ustez, horrek ez du zoriontasuna ematen. Guk badakigu gauza gutxirekin pozik egoten”.

AURRENEKO HITZA EUSKARAZ EGITEN DU BETI. Berebere hizkuntzak eta euskarak elkarren antz handia dutela dio. Duela bi urte etorri zen Euskal Herrira eta Bilbon ezarri zuen bere bizilekua. Maroko iparraldean dagoen Rif eskualdean jaio zen, hain zuzen ere, Alhozeima hirian –lurrikara handia izan zen bertan iragan otsailean–. *Amazightarra* da. Horixe da berebereek euren burua izendatzeko erabiltzen duten izena. *Gizon askea* esan nahi du. Maroko iparraldean kultura ezberdinak ezarri dira historian zehar, eta, jakina, eragina izan dute: jendeak kultura horien ezaugarriak eureganatu egin ditu gutxi-asko. Hori dela eta, hiru egutegi dituzte: berezkoa, gregorianoa eta musulmana. “Amazightarren herria nekazarria da, eta, aspaldiko ohitura baten arabera, udan bildu eta gordetako uzta urtarrilaren 13an ateratzen da biltegitik; horregatik ospatzen dugu Urteberria egun horretan”. Eguzkian oinarritzen den egutegi propio horren arabera, 2955. urtean sartuko gara urtarrilean. Bilbon, urtero, egun horretan, ospakizun berezia egiten dutela jakinarazi digu: “Afarria prestatzen dugu eta lagunartean biltzen gara, musika lagun. Denok zaudete gonbidatuta”.


Gabonak, alta, nekazaritza eremutik hirira jaitsi zenean ezagutu zituen Latifek: “Tetuanen eta Tangerren izan nuen jaien berri; ikasketak amaitu eta hirira jaistean, hain zuzen ere. Bertako hoteletan ospakizun handiak egiten zituzten eta dendetako erakusleihoak opariz beteta egoten ziren. Europara etorri nintzenean, alde horretatik ez nuen ezberdintasun handirik sumatu”.

Gaur egun, euskaldunen artean ospatzen ditu Eguberriak: “Lagun ditudan familia euskaldunekin biltzen naiz afaltzera”. Elkarri opari gehiegi egiten dizkiogula salatu du eta, horren harira, jaien benetako esanahia galdu eta multinazionalen jaiak bilakatu direla. Olentzero “ikazkina” gustuko du ordea: “Bizarzuri eta Olentzeroren artean alde dago: Bizarzurik ez die oparirik ekartzen gaizki portatzen diren umeei. Olentzerok, berriz, beti ekartzen ditu opariak, ikatza baino ez bada ere. Psikologikoki alde dago horretan”.

Lazaro Sebastiao Manuel.
Angolarra, 19 urte



Jatabi Latif.
Marokoarra, 39 urte



Kristina Berazain
Kazetaria

Aspektuaren erabilera okerrak¹

Aspektu kontuetan oso erraza da hanka sartzea, konturatu barik, batzuetan erdararen eraginez. Hona hemen gehien errepikatzen diren erabilera okerrak:

■ Orinaldi historikoa:

Gaztelaniaz honelakoak irakurtzen ditugu behin eta berriro: Mozart nace en Salzburgo en 1756.

Eta, horren ondorioz, euskaraz: *Mozart Salzburgen **jaio-tzen da** 1756an.

Euskaraz, ordea, burutua erabiltzea komeni da: Mozart Salzburgen **jaio zen** 1756an.

■ Aktetan gaztelaniaz burutugabea erabiltzen da normalean; euskaraz hobe burutua erabiltzea:

Epaimahaia **eratu dute** ebazpenean izendatutako pertsonak. Idazkariak **esan du**...

■ Gonbita edo proposamena egitean dugunean, gaztelaniaz orinaldia erabiltzen du; guk, ordea, geroaldia:

¿Celebramos la reunión?

*Zer, **egiten dugu** bilera?

Zer, **egingo dugu** bilera?

■ Denborazkoetan, ekintza bat etorkizunean kokatu nahi denean, Euskaltzaindiak bi hauek onartzen ditu, bigarrena hobesten badu ere:

Etorriko direnean hasiko gara.

↑ Etoritzen direnean hasiko gara. (Burutugabea erabiliz)

■ Gaztelaniazko orinaldi neutroaren ordaina ematerakoan, Euskaltzaindiaren arabera, bi forma hauek erabil daitezke:

Zer ordutan **iristen da** tren a bihar?

Zer ordutan **iritsiko da** tren a bihar?

■ Aspaldian berba erabiltzen dugunean:

Aspaldian ez da **etortzen / etorri** bileretara.

Kontua da zenbait tokitan okertzat ematen dela hemen-go erabilera hau:

Aspaldian **ez dut ikusten** zure lankidea; beste lanposturen bat lortu du ala?

Eta ontzat ondorengo hau:

Aspaldian **ez dut ikusi** zure lankidea; beste lanposturen bat lortu du ala?

Baina testu zaharretan forma biak erabili izan dira; beraz, Euskaltzaindiak ezer esaten ez duen bitartean, ezin esan forma ez-burutua gaizki dagoenik. Hori bai, badirudi bigarren joera nagusitzen ari dela:

Aspaldian **ez da etorri** bileretara.

■ Aditza + izana

Ohituragatik edo, nominalizaziora jotzen dugu honelako esaldietan:

Barkatu zure urtebetetzea **ahaztea**, baina oso lanpetuta ibili naiz.

Esanguratsua da nagusiak horrela **hitz egitea** aurreko aurkezpenean.

Esaldi horietan guztietan, nominalizazioaren bidez, pasatutako ekintza bat adierazi nahi dugu. Horrelakoak hobe honela idazten baditugu:

Barkatu zure urtebetetzea **ahaztu izana**, baina oso lanpetuta ibili naiz.

Esanguratsua da nagusiak horrela **hitz egin izana** aurreko aurkezpenean.

■ Erabilera oker asko daude aditz jakin batzuk besteen logikaren barruan sartu nahi izaten ditugulako; kontuz ibili, besteak beste, forma hauekin: *bizi izan, nahi izan, falta izan...*

*Hemen Luis **bizitzen da**.

Hemen Luis **bizi da**.

*Zergatik joan zen Parisera? Hala **nahi zuelako**.

Zergatik joan zen Parisera? Hala **nahi izan zuelako**.

IVAPEko Administrazio Hizkeraren Atala

¹ Artikulu hau *Galdezka* liburutik ateratako kapitulu baten laburpena da; badakizu, beraz, nora jo, oso-osorik irakurri nahi baduzu: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Galdezka. Euskarazko zalanizei erantzunez*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2003.

Saharako Administrazioa hobetu nahian

2003ko otsailean, Salek Baba jaunak (Kooperaziorako Ministroa) Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusira jo zuen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko (SEAD) Administrazioaren izenean. Helburua: Saharako Administrazioaren antolaketa eta prestakuntzarako aholkularitza tekniko eskatzea.

Eskaera hau Lehendakariak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara egindako bisitaren ondorio zuzena izan zen; lehenago ere eskaini die Eusko Jaurlaritzak SEADeko beste Ministerio batzuei antzerako laguntza teknikoa.

Eskatutakoa administrazio publikoari buruzko gaiak izanik, proiektua IVAPen eskutan geratu zen, eta ia pasatu diren bi urte hauetan hainbat lan eta ekintza burutu dira. Proiektuan parte hartu dutenen artean HEGOA ere badago, Euskal Herriko Unibertsitateko nazioarteko lankidetzeta eta garapenari buruzko ikasketa-institutua, Saharako erakundeetako langileei prestakuntza eta laguntza eman diena azkeneko zortzi urteetan.

Helburua

Proiektuaren helburua SEADeko Administrazioari aholkularitza tekniko eskaintzea da, giza baliabideen eta funtzio publikoko gaien inguruan.

Baina lan horri ezin zaio ekin Euskal Herriko Administrazioen kasuan egiten den moduan. Saharako egoera bereziaz eta zailaz jabetzeko, alde aurretik ezaugarri batzuk jakin behar dira. Lehenik eta behin, SEADeko Administrazioa langileak boluntarioak direla aipatu behar da, hau da, ez dutela soldatarik jasotzen. Bizitzeko behar duten janaria, arropa eta jaimak Nazio Batuen Erakundeak banatzen dizkie bizilagun guztiei. Baina hogeita hamar urte luze egoera honetan egon eta gero, bertako biztanleak negozio txikiak sortzen hasi dira oraintsu, eta egun administrazioan lan egitea ez da gauzarik erakargarriena. Bestaldetik, administrazioan lan egiteko bitartekoak ere oso eskasak dira, komunikazioa oso zaila da, konponbide politikoa momentuz ez dago batere garbi eta geroz eta gazte gehiagok Europan lan egin nahi dute. Honi guztiari buelta eman nahian, administrazioa hobetzea ezinbestekotzat jo dute bertako agintariek.

Gorago aipatutako helburua lortzeko, Saharako Ministerio guztietako informazioa, organigramak, e.a. bildu eta ardura-dunekin elkarrizketak egin ziren.

IVAPen aholkularitza bi arlotan jorratu da; alde batetik, Saharako Administrazioan prestakuntza-plana eratu eta martxan jarri, eta bestetik, bertako Administrazioaren unitateetako egiturak, lanpostuak eta funtzioak aztertu.




Bi atal hauei aurre egiteko, esperientzia pilotu bezala bi Ministerio hartu dira, Kooperaziorako eta Funtzio Publikoakoa, aztertutakoa beste sailetara zabaltzeko asmoz. Azken hilabeteetan, hainbat ikastaro eman dira bertako langileak gai hauetan prestatzeko.

Eta aholkularitza-lan hauek egin diren bitartean, Administrazioaren Eskola berria eraikia izan da Rabunin bertan, Saharako Ministerioak kokatzen diren gunean. Era horretan, bate-tik bestera joan beharrak sortzen duen arazo larria eragotzi nahi izan da, langileek prestakuntza jasotzeko orduan. Saharako herritarrek lau kanpamentutan sakabanatuta daude, eta distantziak dextentekoak dira. Halaber, bulegoetako material asko eraman dugu, kontainer oso bat beterik: 52 ordenadore, 10 inprimagailu, mahaiak, aulkiak, armairuak, artxibategiak, arbelak, argiak, e.a.

Eskola 2004ko azaroan zabaldu zen eta kanpamentuetan kotxe-istripuz hildako kooperante baten izena darama: *Juan Antonio González Caraballo Administrazio-eskola*. Eskolak 3 gela ditu, horietako bat informatikakoa, eta ofimatikako autoikaskuntzako ikastaroak ere instalatu dira. Eta administrazioa gaiez gain, kanpamentuetan sortzen ari den egoera ekonomiko berrirako prestakuntza ere eskainiko da bertan.


Baina lana ez da inolaz ere amaitu, eta datorren urteari begira, ekintza hauek jarriko dira martxan: prestakuntza-plana aurrera eraman, bertako irakasleak prestatu, prestakuntza tokiko administrazioetara zabaldu, administrazioaren egituraren eta lanpostuen azterketarekin jarraitu, lanpostuen monografiak osatu, e.a.

Luis Elizondo
IVAPeko Prestakuntzako teknikaria



Udal-Gobernuaren gidaliburua 2004
Guía del Gobierno Local 2004
 HAAE-IVAP
 Eusko Jaurlaritza
 Zarautz, 2004
 693 or.

IVAPek gidaliburu berri bat prestatu du, toki-erakundeetako langileei eguneroko jardunean laguntzeko. Zortzi atal nagusi ditu: arauen esparrua, antolamendua eta eskumenak, araubide juridikoa, politika publikoak, baliabideak, lurralde-ekintza, ekonomiaren garapena eta herrigintza. Oso liburu erabilgarria dugu, udaletan sortzen diren hainbat eta hainbat zalantza argitzen laguntzeko.



Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura
Euskaltzaindia
Sabino Arana Kultur Elkargoa
 Bilbo, 2004
 162 or.

Sabino Arana Goiriren heriotzaren mendeurrena bete zen 2003an. Gure hizkuntzan eta gure kulturaren Arana Goirik izandako eragina gogoratzeko, Sabino Arana Kultur Elkarteak eta Euskaltzaindiak mintegi bat antolatu zuten. Eta, liburuan, hain zuzen ere, mintegian aurkeztutako ponentziak eta mahainguruan esandakoak biltzen dira. Horrez gain, Sabino Arana Goirik 1898 eta 1902 bitartean idatzitako zazpi gutun ere jasotzen dira. Eta baita Sabino Aranak euskararen alde egindakoari buruz Xabier Lizardik, Jose Aristimuño *Aitzolek* eta Koldo Mitxelena esaten zutena ere.



El lenguaje de la informática e Internet y su traducción
 Belda Medina, José R.
 Universidad de Alicante
 Alicante, 2003
 328 or.

Zenbaitetan, teknologia berrien arloan erabiltzen den hizkuntza berezitua nahitaez erabili behar izaten dugu, behar-tuta gaude: gure gustuko pelikula *DVD* baten bidez ikusten dugu, abesti bat entzun *MP3* erabiliz, erosketaren bat *online* egin dezakegu... Lan honek informatika arloko gaztelaniazko terminologia ikertzeko bideak zabaldu nahi ditu: lexiko berria sortzeko ingelesez erabiltzen diren baliabideak aztertu, eta itzultzeko arazoak zeintzuk diren zehaztu. Kapitulu bakoitzean lexikoa sortzeko modu bat aztertzen da: konposizioa, deribazioa, laburtzapenak, espezializazioa eta maileguak.




Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako
La calidad en el euskera. Razones y objetivos de una definición necesaria
 Euskararen Aholku Batzordea
 Kultura Saila
 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
 Vitoria-Gasteiz, 2004
 Euskaraz: 55 or.; gaztelaniaz: 57 or.

Euskararen Aholku Batzordeko Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atalak euskararen kalitateari buruzko aholku-proposamenak ematen dizkigu lan berri honetan. Hizkuntzaren kalitatearena ez da kontu berria gure artean; aspaldi ari dira arlo askotako eragileak arazoa plazaratzen: irakasleak, itzultzaileak, idazleak, kazetariak... Oraingo honetan, ordea, Joserra Garziak, Kike Amonarrizek eta Andoni Egañak egindako lanari esker, ahaleginak batu, hausnarketa sakona egin eta lan egiteko proposamenak ditugu eskuartean. Egindako lanari buruz gehiago jakin nahi baduzu, Kike Amonarrizek berak idatzitako artikulua irakurri dezakezu aldizkari honetako 5. orrialdean.



Kalitatearen Oinarriko Gidaliburua
Herri Administrazioentzat
Guía Básica de la Calidad para las Administraciones Públicas
 HAAE-IVAP; EUSKALIT
 Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
 Vitoria-Gasteiz, 2004
 128 or.

IVAPek eta Kalitaterako Euskal Iraskundeak (EUSKALIT), 2004ko martxoan izenpetutako hitzarmenaren baitan, gidaliburu hau plazaratu dute, herri-administrazioek kalitatean aurrera egin dezaten. Izan ere, gaur egun herri administrazio eta erakunde askok nahi dute euren zerbitzuak hobetu, eta horietako batzuk hasita daude dagoeneko kalitatearen hobekuntzarekin lotutako kontzeptu eta metodologiak aplikatzen. Horiei guztiei laguntzeko tresna izan nahi du gidaliburu honek.



Administrazioko langaiak. 2. hizkuntza eskakizuna. Izurungoak
 HABE, HAAE-IVAP
 Oñati, 2004
 217 or.

Herri-administrazioetako langileak trebatzeko, HABEK 1992an *Gurtegikoak* eta 1994an *Izurungoak* ikasmaterialak argitaratu zituen. Orain, IVAPen laguntzarekin, HABEK berriro kaleratu ditu administrazioko bigarren hizkuntza eskakizuna lantzen ari direnentzako material horiek berriturik. Hiru bideo oinarri hartuta, liburuan bost ikastunitate lantzen dira; eta unitate bakoitzak hiruzpalau ataza ditu, hau da, herri-administrazioan askotan errepikatzen diren jarduerak.

Bakarrik edo

Azken orduan zortzigarren aldiz jo dute etxeko atea. Ume kuadrila bat. «Olentzero joan zaigu mendira lanera...». Kartera hustea da doinu desafinatua eteteko baldintza. Zenbat eta azkarrago, hobeto. Ez dago erremediorik. Isiltasunak prezioa dauka.

Gustora ordaintzen dut, gabonetan oparirik egiten ez dudarik. Lotsa gehiago ematen dit, *kakaume* hauek bakarrik nagoela somatzeak. Saiatzen naiz ez hanka eta ez buru duten aitzakiekin normaltasunari eusten, baina alferrik da. Alfer-alferrik. Herri osoak daki gabon gaua bakarrik igarotzen dudala.

Orain urtebete hil zitzaidan andrea. Minbiziaz. Diagnostikatu orduko ikusi nuen ez zegoela gauza onik. Medikuek ez dute sekula gezurrik esaten. Isildutako egia zatiaren arabera, koa da gaixoari geratzen zaiona. Igerri nion hilabete kontua baino ez zela. Pozteko moduko ezer ez zela izango. Piztekorik ere ez. Heriotzak ez baitu bizitzarik zor. Bueltarik gabeko egoera bat, besterik ez.

Buelta eman ezinda hasiko zen semea «sustantzia ilegalak» sartzen. Edo ez. Auskalo. Gure semea beti izan da kanpo larrosa. Etxean otsoa izateko denborarik gabe ibiltzen den kanpo larrosa. Uztaitetik dago Martutenen. Hautsa jaten. Aitaren bisitarik jaso nahi ez duela.

Guzti horrengatik gorroto ditut gabonak. Oporrak hartu behar izaten ditudalako. Familiarik ez daukagunoi, konpromiso familiarak jartzen dizkigutelako. Saiatu izan naiz, astero-astero pala partida jokatzen dugunon artean afaritxoa antolatzen. Baina ezin. Fernandok, emazteak ez omen diola uzten. Jon Kepak, ikusi nahi duela haurrak zer aurpegi jarriko duen erosi dion oparia jasotzean. Perikok, urtero amaginarrebarenean afaltzen dutela, eta ohiturari uko egitea, dibortziorako motibo izan litekeela... Aitzaki asko eta ni bakarrik.

Zergatik begiratzen ote zaio zeharka gabonak bakarrik ospatzen dituenari? Baneki. Nik badaezpada, hiru azieta jarri ditut mahain gainean. Nirekin nahi ditudanak egon daitezten.

Elisa eta Jon. Emaztea eta semea. Ez dadila patuaren zamaz jabetzeko zeremonia bat izan.

Daramadan karga astuna da, alta. Astunagoa, gaur bezalako egunetan. Norbere buruari bizitzak merezi duen galdetzerainokoa. Gizarte indibidualista batek bakarkako bizitza nola zigortzen duen jabetzerainokoa. Asko baitira, gaurko gaua, ni bezain bakarrik pasako dutenak. Zerbait afaldu, telebistan egoten diren huskeriak irentsi, eta deus pasa ez balitz bezala oheratuko direnak. Ez gaitu, ordea, inork elkartuko. Ez gaitu inork elkarren bidean jarriko. Eta guk, gure bakardadea gurea baizik ez dela sinetsita, gure burua jipoituko dugu, besterik ez genuela merezi uste arte. Konbentzitura egon arte.

Harrigarria da, bakardade gorri honek gabon jaiaren larrosari ematen dion perspektiba. Harrigarriagoa, larrosa, gorri ajatua soilik dela konturatzean. Nik ez diot inori ezer oparitu. Ez dit inork erregaluri egin. Enpaz. Kito. Nire burua, pixkat gehiago maiteko banu erosi nezakeen azken hilabetean, egunero-egunero, eskaparate atzean begiz jo dudana amerikana dotore hori. Baina ez. Ezin. Errudun sentitzen bainaiz. Emaztea, galdu aurretik hil zitzaidalako. Semeari behar bezalako arreta eskeini ez niolako. Hori diote, behintzat, sasi-sikologoz josita dauden aldizkariak. Drogaren hatzaparretan bukatzen duten hirutik lauk etxean behar besteko arretarik eta mimorik ez dutela jaso. Ez dakit gure kasua den, baina kalean jasaten ditudan begiradak ikusita, kartzelan beharko nuke asko eta askoren ustez. Erraz epaitzen baitu jendeak. Errazegi. Norbere buruari gertatzen zaion arte...

Bixigua labean sartzeko ordua da. Bakarrik afaltzeak ez baitu besteak baino okerrago jan behar dudarik esan nahi. Ezta hurrik ere. Dirua da nire arazorik ezdeusena. Urtarrileko aldapak baino gehiago kezkatzen nau, semearen kartzelaldia izan litekeen mendateak. Zaila baita kartzelan ezer konpontzen. Kanpoan egongo balitz, sikiera, hitzgingo genuke. Barkatuko genuke barkatu beharrekoa. Bakardadean igarotako gabonik ez dugula merezi esango genioke elkarri. Iritsiko ginatke iritsi nahi dugunera. Izango ginatke izan nahi duguna. Aita eta semea. Bi adiskide. Bi lagun-min.

Lagun-minen joanak dakar lagun-mina. Halaxe dio kanta zaharrak. Txirrina jo dute aspaldiko partez. Txaparro kuadrila bat izango da. «Gaztainak erreak dira, txipli-txapla-pu». Malko bat atera didate. Bakardadezko malko bat. Eskua patrikan sartu eta dirurik ez neukala jabetzean, zerbait hartzera gonbidatu ditut. Ezetz. Etxean, haien zain omen daude.

Sustrai Colina
Bertsolaria



Puntu bidezko gidabaimenak lagunduko al du istripuak murrizten?

Espainiako Estatuan errepide istripuetan hildako gehienak hemezortzi eta hogeita lau urte arteko gazteak dira. Arazo larri honi aurre egiteko Barne Ministerioak araudi berria ezarriko du 2005eko udatik aurrera: puntu bidezko gidabaimena.

Gidabaimenak hamabi puntu izango ditu eta gidariak arau-hausterik egiten badu puntuak galduko ditu, eta kasu batzuetan gidabaimena bera ere kendu egingo zaio. Gidabaimena kenduz gero, berriro egin beharko ditu azterketa teorikoa eta praktikoa. Galdutako puntuak berreskuratzeko, berriz, ikastaro berezia (10-12 ordu) egin beharko du. Gidabaimen berriaren inguruko iritziak jaso ditugu.



Jon Altuna
Hiru Euskal Herriko
Garraiolari Autonomoen
Sindikatu**ko komunika-**
zio arduraduna

Errepideetako istripu eta heriotzen kopurua jaisteko martxan jarri den egitasmo honek lortuko du seguru asko bere helburua, baimena galtzeko arriskua egonez gero, gidariak erne ibiliko baitira. Garraiolariak arauak

betetzearen alde daude, noski, errepideetan haiek dabiltzalako gehien eta errepideetako segurtasuna haien segurtasuna ere badelako.

Baina *Hiru*-ko garraiolarien ustez, beste elementu batzuek ere eragina dute arazoan; garraiolari askoren lan baldintza kaxkarrak edota errepide batzuen egoera tamalgarriak aipatu beharko genituzke. Garraiolariak behar bezala ordaintzen ez baldin bazaie, gerta daiteke ordu gehiago edo pisu gehiagorekin lan egin behar izatea; azkenean, handitu egingo da arriskua garraiolariarentzat, eta errepideak erabiltzen dituzten beste guztientzat ere. Horri aurre egitea ere garrantzitsua baita errepideetako istripuak gutxitzeko.

Gainera, kontrol eta zigorrean oinarritutako egitasmo honen inguruan badira kontuan izan beharreko bi puntu garrantzitsu, garraiolariak dagokienez. Alde batetik, garraiolariak arrisku gehiago duela araua hausteko. Bestalde, zigorra bikoitza da garraiolariarentzat, gidabaimena galtzarekin batera ogibidea ere galtzen duelako. Horregatik eskatzen du *Hiru*-k garraiolariak baldintza bereziak izan behar dituztela eta bere lanbidearen berezitasunak kontuan izan behar direla egitasmoa martxan jartzerakoan.



Jon Uriarte
Eusko Jaurlaritzako
Herrizaingo Sailaren
Herritarren Segurtasune-
ko zuzendaria

Gidari batzuek ez dute araurik errespetatzen, eta puntu bidezko karnetak balio dezake horrelako gidariarentzat. Ez dugu esan nahi gidariak karneta kenduko zaionik falta arin edota hutsegite bategatik, baizik eta zigortu egingo direla arau-hauste larri edota oso larriak egiten dituztenak. Kontua da jarrera okerrak eta behin eta berriro errepikatzen direnak ekiditea.

Frantzia jada aplikatzen da neurri hori eta zuzen-zuzen eragin du ezbeharren gutxitzean. Azken hamar urte hauetan hildako eta zaurituen kopurua jaitsez doa gure errepideetan, eta espero dugu araudi berriarekin oraindik istripu gutxiago gertatzea.

Araudi aldaketa honek badu beste alde on bat ere: alde hezitzailea; izan ere, gidabaimena berreskuratzeko ikasi egin behar da. Eusko Jaurlaritzan aspalditik ari gara errepideko heziketan lanean; orain dela gutxi, gainera, neurri hezitzaileak sustatzen hasi gara, esate baterako alkoholaren eraginean berriro gidatu dutenei zuzendutakoak.

Gidabaimen berria eraginkorra izateko, batetik Ertzaintzak zaindari eta kontrol lanak egingo ditu, orain arte bezala edo ahal bada gehiago; eta bestetik, bizkortu egingo da zigor-prozedura, zigorrak ahalik eta azkarren aplikatu ahal izateko.

Arazo larria da errepideko istripuena; hori dela-eta Administrazioak jarraitu beharra dauka horrelako zigor neurriak ezartzen. Horrela lortuko baita errepideetan jende gutxiago hiltzea.



Jaione Raya
Donostiako Oarso
Autoeskolako ikaslea

Nik uste dut horrelako neurri bat indarrean jarriko balitz ardura gehiagorekin gidatuko genukeela; alde batetik begiratuta, ongi ikusten dut neurri hori, zeren modu horretan bost zentzuak jarriko baikenituzke gidatzeko orduan. Ni, gidabaimena ateratzen dudan artean, motorrean ibiltzen naiz eta autoren bat trabak jarritz

doala konturatzen naizenean, segituan ikusten dut autoko gidaria zigarroa erretzen edota sakeleko telefonoarekin hitz egiten. Horrek arreta kenarazten dizu errepidetik.

Esaten da gazte asko hiltzen direla errepidean; lau gaztek egin-dako arduragabekeriengatik gainontzeko gazte guztiak zaku berean sartzen gaituzte; eta hori ez da horrela. Ni pertsona arduratsua naiz eta errepidera irteten naizenean horrelakoa izateko ikasten ari naiz. Baina beste aldetik, puntuak oso erraz gal daitezkeela ikusten dut. Nire ustez, hasiberria zarenean oso erraza da gauza batzuetaz ahaztea, eta beraz, araua haustea; gainera, indarrean jarri nahi duten gidabaimen horren arabera, gidari hasiberriek puntu gutxiago izango genituzke. Gaur egun 60 urteko pertsona batek gidabaimena atera beharko balu, asko kostako litzaioke; praktikoa bai, baina teorikoa oso zaila da. Gidabaimena ateratzeko berriro azterketak egin behar izatea gogorra izango litzateke, eta ez soilik ikasi behar duzulako, baita gidabaimena ateratzeko ordaindu egin behar duzulako ere.

Anselmo Gil
Donostiako Oarso
Autoeskolako titularra eta
Gipuzkoako Autoeskolen
Elkarteko idazkaria



Europar, Frantziar eta Alemaniar esate baterako, indarrean dute lehenagotik arau hori eta emaitza oso onak ematen ari da; hildakoen kopurua gutxitu egin da: ezbeharrak %20 jaitsi dira.

Auto Eskolen Konfederazio Nazionalak estimazio bat egin du estatu Espainako Estatuan indarrean jartzekotan diren arau horri buruz. Estimazio horren arabera, 60.000 auto gidarik araua hautsi eta puntuak galduko litzukete. Horietatik 5.000 gidarik galduko lukete gidabaimena.

Puntuak galtzen dituztenek aukera izango dute puntu horiek berreskuratzeko, eta horretarako zentro homologatu batzuk jarriko dira ikasteko. Printzipioz, berreskuratze-eskola horiek ez dira autoeskoletan emango.

Nik uste dut puntu bidezko karnetaren neurri hori eraginkorra izango dela; istripuak gutxituko dira, jendeari beldurra sartuko baitzaio; baina denbora jakin batean bakarrik funtzionatuko du. Gero, beste neurri batzuk hartu beharko dira gidariengan eragiteko.

Egia esan, gaur egungo araudiarekin ere posible da araua hautsi duen gidariari gidabaimena kentzea, baina ez da aplikatzen. Nik uste dut, azken finean, heziketa baten beharra dagoela: bideko segurtasunari buruzko heziketa jaso behar dute haurrek txikitatik beren etxeetan.

Alfontso Perona
RACC Fundazioko
idazkari exekutiboa



Hamar urte dira Espainiako RACC Automovil Clubak puntu bidezko gidabaimena jartzea eskatu zuela. Gure ustez, puntu bidezko gidabaimena neurri egokia da trafiko arauak behin eta berriz hausten dituzten gidariak kikiltzeko; izan ere, honako aukerak ahalbidetzen ditu: gidariaren historiala ezagutzea, gidariak bere erantzukizuna barneratzea, eta unean uneko zigorrak zehaztea.

Gure ustez, sistema hau Espainiako zigortze-sistema aldatzeko urrats bat izan daiteke, baina ez du zertan ordezkatu errepideko segurtasun gaietarako egiten diren heziketa eta informazio kanpainak; izan ere, horrexek desberdintzen gaitu Europatik gaur egun. Puntu bidezko gidabaimenaren sistemak gidaria hezi behar du.

Puntu bidezko gidabaimen sistema 2005ean jarriko da martxan; baina horrek ez du esan nahi Administrazioak istripuen erantzukizun guztia gidariari leporatu behar dionik; izan ere, errepideetan arrisku gabe ibiltzeko, badago oraindik zeregin franko, esate baterako, gune beltz arriskutsu horiei konponbidea ematea edota bide-seinaleak hobetzea.



Iñaki Pérez de Eulate
Donostiako Teletaxi Vallina-
ko kudeatzailea eta taxista

Gidabaimen berriak istripuak zertxobait murriztuko ditu, gidariak kontu gehiagorekin ibiliko baitira, baina ez dut uste oso eraginkorra izango denik. Dena den, nik beste puntu batean jarri nahi nuke ikuspuntua: alkoholean, hain zuzen ere. Alkoholarekin eraginez datoz istripuak. Kome-

niko litzateke alkoholemia kontrol gehiago jartzea asteburuetan leku jakin batzuetan; ez da egiten. Gidabaimen berriari bi puntu kenduko dituzte bigarren filan aparkatzeagatik edota gaizki egiteagatik. Istripuak gertatzen dira jende bat ibiltzen den bezala ibitzen delako. Barbaridadeak egiten dituzte batzuek.

Ni taxista naiz lanbidez. Hamahiru ordu egoten gara errepidean. Gure bizibidea da, eta, alde horretatik, gidabaimen berriak aurreikusten duen puntuak kentzea guri lanbidea kentzea da. Ez da bidezkoa gidari guztiak berdina izatea penalizatzerakoan. Modu horretan, bi egunetan galduko litzukete puntuak gidariak. Azken finean, neurri errepresiboak dira gidabaimen berriak jasotzen dituenak, ez dago sentsibilizazio neurrik. Uste dut gaur egun zirkulazio araudian dauden bitartekoekin istripuak murriz daitezkeela; horretarako, kontrol handiagoak jarri beharko lirateke. Taxistok Garraio Batzordean sartuta gaude, eta gidabaimen berriko proposamenari alegazioak ipintzeko asmoa dugu.

Nerea Pikabea
Kazetaria



TALDE-LANA, MODA ALA BEHARRA?

GERTAERA DEIGARRI BAT

Talde-lanari buruzko artikulu hau idazteko ideiak antolatu nahian ari nintzela, pasa den asteburuko prentsa irakurtzen hasi, eta izokin-koloreko orrietako lan-eskaintzei erreparatu nien. Era guztietako enpresek –bankuetatik hasi eta ospitaleetaraino, aholkularitza-enpresa eta industria siderometalurgikoak barne– lanpostuak betetzeko eskaintzak argitaratzen zituzten askotariko zereginak burutzeko: administrazio-lanak, merkataritzakoak, produkzioak, logistikakoak, zuzendaritzakoak eta abar. Bazen, ordea, deigarria eta adierazgarria egin zitzaidan zerbait, izan ere, iragarkietan agertzen ziren eskakizunetatik, bazen bat gehienetan agertzen zena: hautagaiek talde-lanerako dohainak izan behar zituzten. Lanbide-esperientziarik behar ez zen kasuetan ere, nahitaezkoa zen hautagaiek talde-laneko gaitasuna izatea. Prestakuntza hori ez da, ordea, eskolan edo unibertsitatean berariaz ematen. Ez zaio ikasketa-planetan sartzeko besteko garrantzirik ematen.

Lanpostuetan beste pertsona batzuen gainean arduraren izango dutenei, berriz, beste zerbait ere eskatzen zitzairen. PRODUKZIO-ZUZENDARI bati ekipoak zuzentzeko lidergo-gaitasuna eskatzen zaio. ERAGIKETEN ZUZENDARI bati ekipoa zuzentzeko estilo proaktiboa. ORDEZKARI KOMERTZIAL bati lidergoa eta ekipoak antolatze gaitasuna. SALMENTETAKO ESQUALDEKO BURU bati ekipoak zuzentzen ohituta egotea. Zuzendari eta buruei eskatzen zaie, ez bakarrik lan-talde batean parte hartzea, baita pertsonak ekipoetan integratzeko gaitasuna, kolektibo bat talde bihurtzeko, eta taldea zentzu hertsian ekipo bihurtzeko ahalmena. Beste iragarki batzuetan, talde-lana aipatu gabe, honako hauek eskatzen zaizkie: “personen arteko komunikaziorako gaitasun handia”, “departamentuetako langileak koordinatu eta zuzentzea”, “aurrekontuak egiten laguntzea”, “ikerketak egiten parte hartzea”, “liderra izateko eta antolatzeko gaitasuna” etab.

TALDEEN HISTORIA LABURRA

Talderako joera biologikoa da. Animalia espezie batzuetan, talde sozialak eratzen dira, janaria, ugalketa eta biziraupena bermatzeko. Animalietan, taldekatzea genetikoki zedarritutako joera da. Talde-kontzeptua, bere horretan, XVII. mendean agertu zen arte plastikoetan. Charles Fourierek eman zion, XIX. mendearen hasieran, zentzu psikosoziala. Kolektiboak taldetan antolatzen ditu, gizarte hobeto antolatua, zioriontsuagoa eta garatuagoa lortzeko ideiarekin. Ia mende bat geroago, lanaren antolaketa zientifikoaren aita den Taylorrek egiturazko erlazioak ezarri zituen talde desberdinen artean, mailaren, espezialitatearen eta produkzio-unitatearen arabera.

Taylorrek dioenez, Organizazioa asmo handiko helburuak lortze aldera elkarrekin erlazioatutako “taldeen taldea” da, banakoen edo kolektibo gregarioen produkzio-ahalmenaren batuketa gaintzen duena. Ikusmolde honekin, eraginkortasun handiagoa lortu nahi da baliabide materialak erabiltzeko orduan (makinak, instalazioak, lehen gaiak eta abar).

Hogeigarren mendearen erdialdera, lan jardueraren alderdi afektiboak sakonago lantzen diren bitartean, Psikologia Humanista konturatzen da taldea motibazio-alderdiak erantsen dituen elementu bat ere badela, eta motibazio hori ez dutela ematen, ez lanak berak, ez inguruak, ezta nagusiekiko, lankideekiko edo menpekoekiko harreman pertsonalek ere. Motibazio-funtzio honen adierazlerik eta aplikaziorik handiena Europako iparraldeko automobil-industrian dago, bertan antolatu baitziren lan-talde autonomoak (Malmöko Volvo lantegian).

Azken hamarkadetan, industria-arotik informazioaren arora pasatu gara eta, tarte horretan, “berriz ikusi” dugu gizakiaren alderdi sozialak izugarriko ahalmena duela baldin eta, era antolatuan, hobekuntza eta ekoizpen helburuak lortzera bideratzen badugu. Baliabide hau, ordea, oso gutxi erabili da, duela urte gutxira arte, lanaren alorrean.

Talde egonkorretan lankidetzan jardunez gero, banakoa hobeto integratzen da, eta motibazio sozialean nekez ordezkara daitezkeen maileri erantzuten die, baina, horretaz gain, norbanakoen eta organizazioen ikaskuntzaren garapen esponentziala ere gertatzen da. Horixe da gaur egun talde-lanak pizten duen interesaren gakoa: ezagutzaren aroan gaude eta ideiak, jakintza edo zientziaren aplikazioak garatzen laguntzen duen guztiak aurrera eragiten dio gizadiari.

Ezaupideak handituz gero, bitarteko gehiago sortzen dira, eta bitarteko horiek berriz inberti daitezke ezagutza gehiago garatzen, gizartearen bizi-kalitatea hobetzeko. Kiribil horretan sartuz gero eta behar bezala kudeatuz gero, aurrerapen eta garpenerako joera nabaria izango da datozen urteotan.

Organizazioaren esparrua lagungarri izan da pertsona ezagutzeko eta horren alderdi soziala aprobetxatzeko, betiere, organizazioaren eta, jakina, pertsonaren beraren onerako. Zenbat eta eduki sozial handiagoa izan gure jarduerak, orduan eta garapen pertsonal eta profesional handiagoa organizazio baten esparruan lan egiten dugunontzat. Hain zuzen ere, horregatik bultzatu da organizaziotik talde-lana. Eta talde-lanaren barruan, komunikazioa, lankidetzak, asmo handiko proiektu komunak, aldaketa konplexu eta berritzaileak eta abar.

TALDEA ENPRESAN

Lan-esparruan, organizazioaren barruan, taldeak arlo funtzionaltak betetzeko eraberritzen dira: salmentak, ekoizpena, finantzak, banaketa, bezeroarentzako zerbitzua eta abar. Arlo funtzional horrek bete beharrek helburua profesionaltasuna eta pertsona bakoitzaren trebetasuna kontuan hartuta banatzen da enpresaren beharrik asetzeko. Buruaren zeregina departamentua edo atala osatzen dutenen ekarpenak erregulatzea eta doitzea izaten da. Ataleko edo departamentuko arduradunak ekipoko kideak egoki integratzea lortzen badu, azken emaitza beti izango da ekarpenen batuketaren emaitza baino hobea. Taldea errealitate berria da, eta pertsonak banaka tratatzeko moduz bestela tratatu eta kudeatu behar da.

Oso jakin beharrekoa da zein aukera dituen talde edo ekipobatek enpresaren helburuen alde egiteko. Baina, aldi berean, funtsezkoa da jakitea zein potentzial sozial duten norbanakoekekipoan ekarpenak egiteko. Duela zenbait denbora, idazle italiar baten alegia irakurri nuen. Hona hemen zer zioen:

“Basoko animaliak konturatu ziren eurretako bat ere ez zela perfektua: txoriek hegan egiten zuten, baina igerian ez; erbiek korrika egiten zuten, baina ez zekiten hegan. Eta horrela denak. Ez ote zegoen aukerarik espezieak hobetzeko prestakuntza-ikastaroren bat egiteko? Esan eta egin. Diru-laguntza eskatu eta Gaitasun Master Balioanitzak antolatu zuten. Lehenengo prestakuntza-saioan erbiak izugarri ondo egin zuen korrika, eta bikain bat jarri zitoten. Baina hegaz ikasteko eskolan, erbia zuhaitz-adar baten gainean jarri zuten eta esan zitoten: hasi hegan! Erbiak jauzi egin eta lurraren kontra jo zuen, hain zorte txarrarekin non hankak apurtu baitzituen eta, harrezkero, korrikan ere ez zen hain ona izan. Txoriak zoragarri egin zuen hegaz. Baina satorra bezala aztarrika hasi zenean, min hartu zuen hegaletan eta mokoan. Ordutik aurrera ez zuen berriro hegaz ondo egin. Ondorioz, ez zuen

indusketako irakasgaia gaudituz eta hurrengo hegaldian nahiko bat baino ez zuen lortu justu-justu. (Leo Bucagliaren “Bizi, maitatu eta ikasi” liburutik hartua).

Alegiaren irakaspena samurra da. Pertsona bakoitzak bere dohainak, esperientzia eta izaera dauzka. Organizazioak pertsona bati dena delako zereginak ematen badizkio eta pertsona horrek ez baditu gustuko edo ez badago horretarako prestatuta, errendimendua erdipurdikoa izan liteke. Baina ez bada taldera egokitzen, ez bada ekipoko beste kideekin integratzen, emaitzak, erdipurdikoak ez, penagarriak izan daitezke.

Talde-ikuspegitik, lidergoa (agintea) ekipoaren mesedetarako beste rol bat baino ez da. Rol horretako funtziorik nagusienetako bat ekipoko kideak integratzea da. Horretarako, beharrezkoa da helburu komun bat partekatzea; bakoitzaren trebetasun eta gaitasunetatik abiatuta, helburu komun hori lortzen parte hartzea; denok onartutako joko-arauak (diziplina) ezarriz, taldearen kohesioa mantentzea; informazioa lortu nahi diren helburuen arabera banatzea, ez boterearen pribilegioaren arabera. A! Eta ekipoaren lorpenak ospatu eta zorionak ematea.

Gaur egun, enpresek lanbidean ondo prestatutako pertsonak bilatzen dituzte, nor bere espezialitatean adituak (suposatzen da horretarako pasatzen direla eskolatik eta unibertsitatetik). Hala ere, enpresa horietako gehienek gero eta gehiago baloratzen dituzte lehiakor izateko eta balio erantsia duen zerbitzu bat eskaintzeko beharrezko diren beste oinarrizko alderdi batzuk ere. Hala lankide nola arduradun direnei, lan-taldeetan inplikatzeko eta lider izaten jakitea eskatzen zaie, beste gaitasun batzuen artean.

Taldearen errealitatea, organizazioaren errealitatean nola aplikatu apenas ezagutzen bada ere, polidrikoa da, eta zenbat eta gehiago sakondu, galdera gehiago sortzen dira. Adibidez:

- ▶ Zeintzuk dira taldearen eta ekipoaren arteko aldeak eta nola gara daiteke talde bat ekipo gisa lan egin dezan?
- ▶ Zer alde dago ekipoak lideratzearen eta ekipoan lideratzearen artean? Ekipotik abiatuta, nola igaro lidergo sozializatu eta partaidetzazko batera?
- ▶ Zergatik egiten dute porrot ekipoek, edo zergatik dute arrakasta?
- ▶ Zein da ekipo berritzaileen gakoa eta nola osa daitezke?
- ▶ Talde-lana eta horren gidaritzak trebetasunen batuketak da ala gaitasun bat?
- ▶ Zein aukera eskaintzen dute lan-ekipoek organizazio jakin batean?
- ▶ Nola hedatu talde-lana organizazio batean?
- ▶ Zenbateraino garatzen du talde-lanak kideen nortasuna eta zein neurritaraino pizten ditu balio sozialak (lankidetzak, elkartasuna, justizia etab.)?

Galdera hauei eta beste batzuei erantzuteko, hainbat pertsona ari dira lanean: psikologoak, gizarte-hezitzaileak, pedagogoak, soziologoak eta gizakiaren portaera konplexua ikertzen ari diren beste profesional batzuk. Ezagutza aplikatuaren beste bide bat da, gure gizarteari korritu handiak ekarriko dizkiona.

Manuel Poblete'

Gizarte Psikologiako doktorea Bartzelonako Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta enpresa-kontultorea

Euskal kostaldea, kortsarioen aterpe

HASTAPENAK

Euskaldunak betidanik erakutsi izan du itsasoarekiko atxikimendua, Gipuzkoako Altxerri eta Ekain leizetako arrain irudiek agertzen dutenez. Zaletasun goiztiarra izan zen, bai, baina abentura luze hark geroago izan zuen hastapena, gure arbasoek ur sakonen abantaila izugarriak deskubritu zituzten une berean. Honela, Euskal Herriko itsas mugimendu benetakoa normandoekin batera hasiko zen, IX. gizaldian. Normandoek penintsulako iparraldean zeuden portuak triskatu zituzten, eta Baiona eta Iruñea hartu. Euskaldunek “suaren adoratzaileen” nabigazio teknikak hobetu zituzten, eta, horrela, erronka handiei aurre egiten hasi ziren (badakigu, adibidez, 1282an euskal boluntarioekin osatutako talde batek Galesko konkistan parte hartu zuela, anglo-normandarrei lagunduz).

Baiona Nafarroako Erreinuko portu bihurtu zen berehala eta Euskal Herriko kostaldean agertu ziren lehenengoko piraten ezkutaleku nagusia ere izan zen. Euskal marinela Kantauri zakarrean ausartu ziren hasieran, eta gero mundu guztiko itsaso eta ozeanoetan barna abiatu ziren, balearen, bakailaoaren eta espezien arrastoari jarraituz. Baina euskaldunen egonezinak itsasoan zebiltzan beste herrialde batzuen asmoekin egingo zuen talka laster, eta, ondorioz, amaigabeko lisakar odoltsuak izan ziren. Hala, herrialde desberdinen arteko guda eta norgehiagoken erruz itsas lapurreta eta kortsoa jaio ziren.

KORTSOA

Pirateria eta kortsoa itsas merkataritza eta arrantzari estu-estu lotuta egon dira betidanik. Euskal armadoreek eta marinelek ingelesez, espainolez, frantsesez eta holandarren arteko gerrak ondo baino hobeto aprobetxatu zituzten, batzuetan “itsas lapurreta patentearekin” jokatu, hots, errege batek arerioen armadei erasotzeko emandako baimenarekin (hortik dator “kortsario” hitza bera); beste batzuetan, ordea, lapurreta kasu arruntak ziren, inongo baimenik gabe eginko erasoak. Badirudi bizkaitarrek jasotako era horretako lehenengoko agiriak Fernando Katolikoak eman zituela, XV. mendearen hondarretan, baina kortso patente bat sinatu zuen lehen erregea Ingalaterrako Enrique III.a (1216-1272) izan omen zen. Era berean, euskal piratak bazirela ziurtatzen duen lehenengoko dokumentua 1304. urtekoa da, eta bertan Mediterraneoan sartu

zirenekoa aipatzen da. Halaber, izen-abizen eta guzti ezagutzen ditugun lehenengo pirata euskaldunek bizkaitar jatorria zuten eta XV. gizaldian jardun zuten (Anton de Garay eta Pedro de Larraondo). Ez ziren bakarrak izan, ordea. Asko omen ziren horretan zebiltzan euskaldunak, hainbeste ze XIV. mendean Ingalaterrako Eduardo III.a erregea kexu agertu zen, euskal piratek bere ontziteriari itzelezko galerak eragiten zizkiotela-eta.

Euskal piraten eta kortsarioen “urrezko gizaldiak” XVI.a eta XVII.a izan ziren. Donibane Lohitzune, Ziburu, Baiona, Donostia edo Hondarribia bezalako portuek izugarriko gorakada izan zuten jardute horri esker. Oparaldi horren isla bilakatu zen Donostiako portua. 1622-1697 bitartean 141 armadore zituen Gipuzkoako hiri nagusiak, eta 300 itsasontzirik gora, eta gehienek kortso patentearekin jokatu zuten. Iberiar Penintsulako kortsario portu garrantzitsuenak bihurtu zen Donostiakoa, eta itsas ordenazioak lortu zituen lehen hiria ere bai. Baionak ere bazuen nahikoa fama, “piraten habia” bezala ezagutzen baitzuten. Beste horrenbeste esan daiteke Pasaia, Hondarribia eta Donibane Lohitzuni buruz. Lapurdi izan zen, gainera, historiako piratarik ospetsuenen jaioterria.

ONTZIGINTZA “MUNDIALA”

Euskal arrantzaile porrokatuek denetarik egin zuten mende haietan, arrantza, merkataritza eta pirateria behin eta berriro uztartuz. Armadoreek horretarako egokitzen zituzten belaontziak. Ontzigintzan iaioak ziren euskaldunak eta munduko itsasontzirik onenak ateratzen ziren errekondu eta ibaiertzeko ontziola ugariatik. XVI. mendetik aurrera goraka egin zuen nabarmen euskal ontzioletako jardunak eta haien teilatupetik atera ziren munduko ontzirik sendoenak. Jardun horren adibide garbia zen Euskal Herriko kostaldean zegoen itzelezko ontziteria. 1533. urtean, adibidez, Bizkaiko eta Gipuzkoako txalupak 200 unitateko flota osatzen zuten; guztira zortzi bat mila lagunentzako lana zegoen han.

BIZI MODU LATZA

Itsas lapurren bizitza gogorra zen: tripulazioak itsasontziaren bizkarrean (kubiertan) egiten zuen lo gehienetan, XVI. mendera arte ez baitzuten



ten hamaka edo oherik ezagutu; pixa eta kaka *oilotegia* izeneko toki batean egiten zuten, makurtuta –hortik dator *oiloiipurdia* esakera–; janaria urria eta antzekoa zen ia beti (sagardoa, bakailaoa, sardina gatzetan, eztia, bizkotxoia eta urdaia); gaixotasunak ugari eta garbitasun gutxi zegoen bazterretan... eta diziplina zorrotzak agintzen zuen itsas sakonean. Itsasoratutakoan portu barreneko liskar txikiak eta zorrak baztertu eta diziplina zorrotzaren menpe geratzen ziren kortsarioak. Ontziratzen ziren une berean notarioaren aurrean ematen zituzten izen-abizenak, txanpon batzuk jasotzen zituzten, egin beharreko lanaren aurrerakin gisa, eta gero ontziko arautegia errespetatzeko juramentua egiten zuten denek.

Pirateren leial jokatzeko zuten kapitaina zein tripulazioarekin. Bazuten horretarako arrazoirik: guztien bizia zegoen jokoan, eta, hori gutxi balitz bezala, ontzi barruko zigorrak beldurgarriak ziren. Akats larrienak gogor zigortzen ziren (batez ere piraten ontzietan, ez hainbeste kortsarioenetan). Juramentu eta jokoak galarazita zeuden. Hurkoari lapurretan harrapatzen zutenari zepoa jartzen zioten. Labana atera eta ontzi gaineko beste marinel bati erasotzen zionari eskuak mastan iltzatzen zizkioten, berak erabilitako laban berdinarekin gainera. Ontzian bestelako istiluak sortzen zituenak itsasoa zuen zain: hara botatzen zuten ofizialek, hiru biderrez, edo ontziaren gila azpitik pasarazten zuten. Motinaren aldekoak zer esanik ez, berehala garbitzen zituzten, eta beste horrenbeste gertatzen zitzaion ontzia zulotzen zuenari. Hilketaren bat zegoenean zigorra ez zen bigunagoa: hiltzailea eta biktima, biak batera, lotzen zituzten, eta gero itsasora bota.

BORROKAK

Hezur-haragizko gizon hauek mundu guztiko itsasoak odoleztatu zituzten, harik eta estatuen indartzeak, itsas armaden gorakadak eta baporearen etorrerak pirateria zapuztu eta akabatu zuen arte.

Zinematografiak eta generoko eleberriek ehunka abordatze adoltsu eta ikusgarri erakutsi dizkiguten arren, historiak bestelakoa dio, hots, gutxitan suertatzen zirela horrelako borrokak. Abordatzea oso arriskutsua zen, ze erraza zen hankaz gora jaustea: postura eskasa inori erasotzeko. Horregatik, euskal kortsarioek garraiorako edo arrantzarako erabiltzen ziren ontziak erasotzen zituzten gehienetan. Lapurrak nekez oldartzen zizaizkien galeoi handiei eta lerroko itsasontziei.


Pirateriaren lehenengo urteetan aurrez aurreko borroka erabakigarria izaten zen. Baina XVI. mendetik aurrera artilleriaren erabilera baztertu zuten taktika zaharrak. Iberiar Penintsulan 1359an erabili zuten lehenengoz ontzi gaineko artilleria, aurretiaz beste leku batzuetan probatua zuten arren (ingelesak aitzindariak izan ziren horretan). Pirateren gutxitan erabiltzen zuten artilleria, arrazoi jakina medio: ontziak oso-osorik behar zituzten, horiek birrinduz gero euren merkantziarekin batera hondoratuko baitziren.

BISITARIAK

Euskal Herriak atzerriko pirateren eraso bortitzak ere jasan behar izan zituen; Francis Drake kortsario ingelesarenak edo Bizargorriarenak, esaterako. Buruzagi turkiarrak 1530. urtean eraso zion euskal kostaldeari, eta gipuzkoar batzuk gatibu hartu zituen (jakin badakigu Debako herriak diru asko ordaindu behar izan zuela turkiararen esku zegoen herritar bat askatzeko). Urte batzuk geroago, 1596an, Francis Drake ospetsua agertu zen Bizkaiko itsasbaterrean, eta Bermeoko lurretan dagoen Gaztelugatxeko gotorlekua birrindu zuen.

Iñaki Mendizabal
Editorea

Hitz gurutzatuak



EZKER ESKUIN

1. Bustia.
2. Bizkaieraz, duk. Juntagailua.
3. Bihi, ale. Euskal sindikatua.
4. Ez eme. Norbaiten.
5. Uranioaren ikur kimikoa. Fruta mota. Kontsonantea.
6. Belardia, belazea. Kontsonante errepikatua.
7. Edo. Barazki mota.
8. Bibliako pertsonaia. Gironatik igarotzen den ibaia.
9. Uztai.

GOITIK BEHERA

1. Objektua.
2. Errepikatuz, ikara. Hitz, solas, berba.
3. Leku horretan. Emea gurasoekiko.
4. Urtearen seigarren hilabetea. Argonaren ikur kimikoa.
5. Kontsonantea. Behizaina. Potasioaren ikur kimikoa.
6. Bokal errepikatua. Ontzat eman.
7. Irten, jalgi. Infusio mota.
8. Garau. Kitatzeke dagoena.
9. Itxura.

Letra zopa

D	U	L	G	A	E	M	E	D	I	K	E
A	H	U	K	O	T	A	O	N	A	S	U
T	O	T	R	B	R	T	L	A	R	O	D
U	X	A	U	Z	O	B	A	I	L	N	B
A	B	I	N	B	A	L	E	T	A	R	I
I	R	G	N	A	I	B	H	I	S	U	N
O	N	A	R	D	A	I	X	L	A	B	I
D	A	I	Z	K	O	T	A	U	L	I	Z
M	I	H	O	L	E	K	U	P	D	R	E
Z	I	R	R	O	K	Z	I	A	I	O	K

LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan Euskal Herriko zortzi gailurren izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- Berria: 943/30 40 30
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 848/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/02 81 00
- UZEI: 943/47 33 77

Soluzioak

Letra zopa

Txindoki, Gorbeta, Anbotu, Aizkorri, Okabe, Binbaleta, Artas, Oñti.

9. Antza

1. Gauea, 2. Dar. Ele, 3. Hor. Aiba, 4. Ekaina, Ar. 5. Z. Unai, K. 6. Ee. Onartu, 7. Aiera, Tea, 8. Ale. Zor.

Goitik behera:

9. Arkua

5. U. Anana, T. 6. Zelata, Zz. 7. Ala. Artoa, 8. Eba. Ter.

Ezker eskuin:

Hitz gurutzatuak